

# Lesakako ahoskeraren azterketa

---

Gradu Amaierako Lana

June Sanz Badiola

EUSKAL IKASKETAK GRADUA  
2019/20 ikasturtea

Tutorea:

Oroitz Jauregi

EUSKAL IKASKETAK ETA

HIZKUNTZALARITZA SAILA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## Laburpena

Egunerokotasunean hiztun guztiok hizkera desberdinak erabiltzen ditugu, egoera, solaskidea, gaia edota asmoa, besteak beste, baldintzatua. Testuinguruaren arabera hiztunak erregistro bat edo beste erabiltzearen hautua egingo du. Bestela esanda, etxean edota lagunartean egingo dugun hizkera eta jendaurreko aurkezpen batean egingo duguna, oro har, ez da berdina izango. Hizkera-mailen arteko sailkapena egiterakoan, gutxieneko sailkapen bat egitearren, lagunarteko hizkera eta hizkera jasoa bereiz daitezke, bi hauek *continuum* baten ertzak izanik, izan ere, bi ertz hauen artean beste hainbat hizkera-maila bereizi baitaitezke.

Ahoskerari dagokionez, ahozkoak berezkoa du aldagarritasuna. Izan ere, egunerokotasunean egiten dugun ekintza naturala izanik, hitz egiterakoan alderdi fisiko, psikologiko, emozional edota soziologikoek eragina dute ahoskeran. Honez gain, gorago esan bezala, egoerak, igorri nahi den mezuak edota solaskideak ere eragina dute ahoskeran. Hala nola, egoera lasaiagoetan (etxean, lagunartean...) hots galtze eta hots ordezkatzeko gehiago gertatu ohi da, egoera formalagoetan baino, azken hauetan esaten duguna eta nola esaten dugun gehiago kontrolatu ohi baitugu. Fonologiaren alderditik begiraturik, hizkera arduragabeen *lenitio* edo ahultze bilakabide gehiago gertatu ohi dira eta hizkera zainduan berriz, *fortitio* edo indartze bilakabideak.

Hau guztia kontuan harturik, 1998an Euskaltzaindiak *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako* arau proposamenak plazaratu zituen. Arau hauek hizkera jasorako badira ere, garrantzitsua da arauen izaera malguaren ideia kontutan izatea. EBAZen izaera malgua bi ardatzetan du oinarri: ardatz geografikoa eta funtzionala. Izan ere, arauak ematerakoan, alde batetik, kontuan hartzen dira ahoskerak izan dezakeen aldagarritasun geografikoa, eta bestetik, hizkera jasorako proposaturikoaz gainera, beste hizkera-mailetarako egin daitezkeen ahoskerak ere aipatzen dira.

Hau ikusirik, lan honetan Lesakako hizkera jasoa eta lagunartekoaren ahoskeren artean gertatzen diren bilakabideak aztertuko ditut EBAZ arau edo gomendioak oinarri harturik. Horretarako, hizkera jasoa eta lagunarteko hizkeran ari diren hainbat lesakarren hotsak bildu ditut. Hizkera jasoiari dagokionez, *Xorroxin Irratiara*

(Bortziriak-Baztan-Malerreka eta Bertizarana biltzen dituen eskualde hedabidea) jo dut, bertan ari diren hainbat lesakar hiztunen hotsak biltzeko. Lagunarteko hizkera jasotzeko berriz, eguneroko hizkera egiteko eskatuz, bi lesakar elkarrizketatu ditut. Azterketa egiterakoan lehenik, bi hizkera-mailetan bildutako datuak EBAZen arauen hurrenkera jarraiturik eman dira, horien azterketa hurrengo atalerako utziz. Datuen azterketarako, fortitio/lenitio banaketa ardatz harturik, kasu bakoitzean bilakabide fonologikorik gertatu den eta zein bilakabide gertatu den aztertu da. Behin azterketa eginda, espero zen bezala, hizkera arduragabeen lenitio gehiagago gertatu direla ikusi da.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	4
2. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua.....	5
2.2. EBAZ arauak nola ulertu .....	9
2.3. Ahoskera estandarra eta herri hedabideak .....	11
3. Bilakabide fonologikoak: <i>Fortitio</i> eta <i>lenitio</i> bilakabideak. ....	13
4. Kopusaren azterketa .....	16
4.1. Korpusaren deskribapena.....	16
4.2. Datuak .....	17
4.3. Datuen azterketa .....	25
5. Ondorioak.....	32
6. Bibliografia.....	34
7. ERANSKINA.....	36
7.1. Lehen eranskina .....	36
7.2. Bigarren eranskina .....	45

## 1. Sarrera

Arrazoi intralinguistiko edota hizkuntzaz kanpoko arrazoiengatik, hizkuntza aldakorra da eta aldakortasun hori hiru ardatzen arabera bereiz daiteke: diatopikoa edota geografiaren arabera; diastratikoa edota aldagai sozialen arabera; eta diafasikoa edota hizkera-mailen arabera edo estiloaren arabera. Azken honi dagokionez, hainbat faktorek eraginda, solaskidea, gaia, asmoa edota egoera, besteak beste, hizkera-maila bat edo beste erabiltzeko hautua egingo du hiztunak. Esaterako, hiztun guztiak jabetzen gara etxean modu batera hitz egiten dugula eta mikrofono aurrean bestera. Hau da, egoera, lasaiagoa ala formalagoa izan, baldintzatzen du zein hizkera-maila egingo dugun eta honen arabera hizkera-mota edo erregistro desberdinak bereiz daitezke.

Aldakortasuna, ahoskerari dagokionez, 'hiztunak hots intentzio batzuk izaten ditugu buruan eta gero lastertasunaren, egokieraren arabera, hizketa gaiari edo hizketa lagunari ematen zaion garrantziaren arabera, intentzio horiek era batera zein bestera aterako dira, kontrolagarriagoak izanik egoera formal batean (...). Horregatik, halakoetan hots galtze edo itxura-galtze gutxiago gertatu ohi dira'. (Euskaltzaindia, 2019)

Lehen esan bezala, egoeraren arabera hizkera-mailak bereiz daitezke baina hala eta guztiz ere, hizkera-mailen artean muga zehatzak jartzea edota hauek zenbatzea ezinezkoa da: 'erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik' (Barrios et al. 2008). Hau kontuan harturik bi hizkera mota nagusi bereizten ditu Barrios et al. (2008): familiarra (intimoa eta lagunarterkoa eta ez familiarra (kausala, formal jaso edo neutroa eta erritualizatuak).

Era berean, Oñederrak 1994ko txostenean hizkera-mailak definitzerakoan honako gutxieneko sailkapen hau egiten du: hizkera zaindua (jasoa) vs. arduragabea; eta hizkera zaindian maila edo erregistro neutroak eta ez-horren-neutroak. Oro har, hizkera-mailen gaia korapilatsua da, hortaz lan honetan Oñederrak (1994) egiten duen oinarritzko sailkapenera joko dut (hizkera zaindua eta hizkera arduragabea). Beti ere, jakinaren gainean bi hizkera-maila hauen artean pauso gehiago egon daitezkeela:

‘neutrotasun handiagoa eska dakioke irrati-telebistako albisteak irakurtzen dituenari literaturazko hitzaldia ematen duen idazleari baino, agian azken honi baino gehixeago literatur kritikoari eta, albiste aurkezleari baino gutxiago elkarrizketak egiten dituenari, e.a.’ (Oñederra, 1994a)

Hizkera mailen lehenengo sailkapenera bueltatuz, Barrios et al. (2008) adierazten duten bezala, neutrotik jasorako bitarteko esparru hori euskara estandarrak beteko luke, batua izan ala euskalki jasoia izan. Eta ahoskera estandarrari dagokionez, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) hain zuzen ere, bere lekua hizkera zaindu neutroan legoke (Oñederra, 1994a). Hau da, EBAZ hizkera jasoia eskatzen duten, irrati-telebistetako berri-emanaldietan, jendaurreko hitzaldietan, eskolako azalpenetan esaterako, erabili beharreko ahoskera ereduak litzateke. Beraz EBAZ-en erabilera ez da hiztun guztientzat, izan ere, hiztun batzuen euskararen erabilera lagunartekora mugatuko da bakarrik, eta beste batzuk ordea, jorratzen duten lana dela eta, edota egoerak ala eskatzen duelako EBAZ erabili beharko dute.

## 2. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua

Aurreko atalean esan bezala EBAZ-en lekua hizkera zainduan legoke (Oñederra, 1994a). Ahoskera estandartzearen berezitasunak direla eta, atal honetan EBAZ arauak zer diren eta nola ulertu behar diren azalduko dut. Hala ere, lehenik Euskara Batu idatzia eta EBAZ-en ibilbidea azalduko dut testuinguruan jartzeko. Izan ere, 1968koan, Euskara Batua sortu zenean idatzizkoa arautzea zen helburu eta horrela aitortu zen. 90ko hamarkadarte, ordea, ez zen ezer egingo ahoskeraren inguruan.

Euskara idatziz erabiltzen hasi zenetik izan da batasunerako ardurak (Zuazo, 2005). Hori erakusten dute Euskaltzaindia sortu aurreko autore askok. Hala ere, Euskal Herriko zatiketa administratiboa dela eta, autore bakoitzak bere euskalkia proposatu zuen, Euskal Herria eta euskararen osotasunari begiratu beharrean. 1918an Euskaltzaindia sortu zen, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako erakunde nagusiek babestuta eta zazpi herrialdeetako ordezkariak osatuta, euskararen batasuna lortzeko helburuarekin, besteak beste. Hala ere, ahalenginak ahalegin, ortografia izan ezik ez zen beste aurrerapausorik egin.

Espaniako Gerra Zibilak ekarri zuen etenaldia eta gero, Euskaltzaindiak bere lanari ekin zion berriz 1950ko hamarkadan. Hamarkada honetan eta ondorengo 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatutako gizarte aldaketek giro egokia ekarri zuten euskararen batasunaren inguruan lanean jartzeko: euskara erabiltzen hasi zen herri hazietako gazteria; ikastolak eta euskaraz ikasteko gau eskolak sortu ziren; euskarazko kulturgintzan ahalik eta jende multzorik zabalenera iritsi nahia zegoen edota Euskal Herria bere osotasunean herri bakar bat bezala ikusten hasi zen (Zuazo, 2005).

Aldakuntza giro honetan beraz, bi aintzindari aipatu behar dira Euskara Batuari dagokionez: Aresti eta Txillardegi. ‘Lehena, 1960ko *Maldanbehera* poeman artean sortzeko eta arautzeko zegoen euskara batu-antzekoa erabili zuelako; bigarrena, berriz, Baionan 1964an egin zen batzarrerako proposamen zehatzak biltzen zituen txostena apailatu zuelako’ (Oñederra et al., 2015). Txosten honetan hiru atal biltzen ziren: ortografia, deklinabidea eta aditza. Lau urte beranduago, 1968an, Euskaltzaindia sortu zeneko mende erdia betetzen zuelarik, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari eman zion euskara batua finkatzeko ardura. 1968an Arantzazuko biltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen Mitxelenak osatutako txostena eta idatzirako aldaera estandarra onartu zen, Euskara Batua hain zuzen ere. Mitxelenaren txostenak bost atal zituen: ortografia, euskal hitz eta aldaera lexiko zaharrak, hitz berriak, morfologia eta sintaxia.

Euskara Batua izateak, euskalki desberdinetako hiztunak euskaraz elkar ulertzea ekarri zuen, eta ez zuten lehenago bezala erdaratara jo beharko. Gainera, eredu bakarrak idatzizko zereginetan inolako eragozpenik gabe erabili ahal izatea ekarri zuen eta euskara kultur hizkuntza izateko atea ireki zuen (Zuazo, 2005). Euskara ikasi nahi zuenarentzat eredu bat zuen eta honek euskaldun berrien kopurua handitzea ekarri zuen, euskara hizkuntza gutxitua izanik, ezinbesteko faktorea honen suspertze eta biziraupenerako.

Francok ezarritako erregimena amaiturik, 1979an Gernikako Estatutua onartu zen eta honekin batera euskarak estatus ofiziala lortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan, berriz, Foru Hobekuntzarekin etorri zen euskararen ofizialtasuna Nafarroako iparraldean. Beraz, gaztelerarekin batera euskara hizkuntza ko-ofiziala bihurtu zen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako iparraldean eta honekin batera euskara eremu berrietara hedatu zen: hedabideetara, unibertsitatara,

administrazio publikora, esaterako. Esparru berri hauetan Euskara Batua zen egokiena euskarak bete beharko zituen funtzio berrietarako.

‘as an official language, Basque entered new fields such as the mass media, the (also new) university, and public administration, where it had never been present before. It was a generally shared idea that the standard variety was the most adequate choice for the new functions of the language.’ (Oñederra, 2016: 131)

Euskara Batua 1968 finkatu bazen ere, ondorengo urteetan ere erabakiak etorri ziren, baina beti ere idatzirako izanik. 1982an ordea, euskal irrati eta telebista sortu ziren eta ondorengo urteetan Euskaltzaindiari eskatu zioten euskara batua ahoskatzeko irizpideak. Horren aurrean, ahoskerari dagokionez hasi ziren lehen aldiz kezkatzen. Hala ere, ez ziren esateriak bakarrik ahoskera estandarraren beharra zutenak, izan ere, Euskara Batua egokiena zela pentsatuz irakasle gehienek hau bera hautatu zuten hizkuntzaren transmisiorako. Beraz, ikasle berriek batuan ikasiko zuten.

Euskal irrati eta telebista sortu eta hamar bat urte beranduago, 1993an, Euskaltzaindiak hizkuntzalari talde bat bildu zuen Ahoskera batzordea sortzeko. Urte bat beranduago 1994an Leioako biltzarrean, Euskara Batuaren behin betiko arauak zehaztu ziren *Arauak* izenburupean bilduta eta bertan agertu ziren lehen aldiz (eta 1998an osaturik) ahoskeran inguruko arauak. ‘Lehen txostenaren idatzaldi bat 1994an aurkeztu zen (Oñederra 1994a, b), eta ondotik, hizkuntzalariz eta irakaslez osatutako talde batek lanean jarraitu zuen, 1996 eta 1998 bitartean. 1998 bukaera aldera argitaratu zen, azkenik, *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*.’(Oñederra et al. 2015)

Laburbilduz, Euskara Batu idatzia (1964-68) sortu zenetik EBAZa etorri arte hizkera berri horren ahoskeran hutsune bat egon zen. Honek ondorioak ekarri zituen ahoskerari dagokionez, izan ere, batua idatziz gain ahoz ere erabiltzen zuten hiztun askok eta estandarraren ahoskeraren irizpiderik ezean, hiztunek ahal bezala egiten zuten.

Esaterako, Euskara Batuak prosodia berria ekarri zuen: azentu erregularrekoa (azken aurreko silabaindartzeko joeraz) eta hizkako azentua<sup>1</sup> zuena. Honez gain, letren ahoskera edo *spelling pronunciation* ekarri zuen ere, hau da, letrak erabat berdintzea fonemekin. Hala nola, hiztunek lagunarteko hizkeran, *ez dakit* [estakit] egin beharrean,

---

<sup>1</sup> Hizkako azentu molde hori badirudi gazteleratik hartua dela. Euskaraz ordea, hizkuntza buru-azken eta komutzadura sistema konplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagma azentu bakarraren azpian biltzea. (Oñederra et al., 2015)



batuan [esdakit] ahoskatuko lukete /d/→[t] saihestuz, eta forma idatziaren /d/→ [d] mantenduz. Bestalde, euskaldun berriek euskarazko eredurik ezean, frantses edota gaztelaniazko eredu fonologikoetara jo zuten; eta euskaldun zaharren kasuan ordea, beraien aldaerara jo zuten zenbait kasutan. (Oñederra, 2016).

## 2.1. Ahoskera arautzearen zenbait ezaugarri

Aurreko atalean esan bezala, 1993an Euskaltzaindiak Ahoskera lantalde bat sortu zuen ahoskeraren inguruan lan egiteko eta urte bat beranduago plazaratu zen lehen aldiz Euskara Batuaren Ahoskera Zainduari dagokion araua (Oñederra, 1994a, b), 1998an biribilduko zena.

Hala ere, ahoskera arautzearen lanari ekin ziotenean, ahozkoaren berezitasunak direla eta, Ahoskera Lantaldeak ez zuen ezerezatik arau sorta bat atera nahi izan. Idatzizkoa arautzea baino zeregin konplexuagoa baita ahozkoa arautzea.

Idatzizkoa arautzea eta ahozkoa arautzea ez da berdina. Ahozkoa edo hitz egitea egunerokotasunean egiten dugun zerbait da, konturatu gabe, eta idazteak berriz aurre gogoeta bat eskatzen du. Hitzunarentzat ere garrantzi handiagoa dauka ahozkoak idatzizkoak baino, hitz egiterakoan alderdi psikologiko, soziologiko edota emozionalak nahasten baitira. Pertsonak norbanako eta aldi berean taldekide ere bagaren aldetik, gizarte maila jakin batekin, jatorri geografiko batekin ala kultura erreferentzia berezi batzuekin identifika genezake fonema baten ahoskera jakin bat eta kasu batzuetan ez da txantxetako edo jolaserako gaia: norberaren baitako ziurtasuna, duintasuna, talde-identifikazioa edo honako edo harako balioak... garrantzi handiko heldulekua baitira pertsonarentzat (Camino, 2015). Horregatik, artifizial suertatzen zaion arau baten kontra errazago jarriko da hiztuna ahozkoaren kasua idatzizko kasuan baino. Ortografiari dagokionez ere, hau bera arautzerakoan, ortografia bat eta bakarria posible den bitartean, ahoskera batua ez da inoiz bakarria izango.

Honez gain, ahoskera ez da gramatika eta hiztegia bezala ikasten. Adibidez, *gurpila* edo *kurpila* zein den ikastea memoria kontua da, euskara batuan zein gelditu den jakitea; bokal arteko *ttak*-a kentzea lasaitasunagatik, giharrak lasaitzeagatik ez da memoria kontua. Ahoskera ikastea, hitzen forma akustikoa geureganatzea da: zein hots,

zein musika, zein erritmo zein itxura akustikoa duen lagunarteko hizketak eta zein hitzaldi batekoak (Euskaltzaindia, 2019).

Beraz, ahozkoaren berezitasunak kontuan harturik, ahozko estandarra zer eta nolakoa izango zenaren inguruko galderak planteatu ziren lehenik eta behin. Arautu beharko zena beraz, hizkera jaso izango zen, hau baita beste hizkuntzetan ere egin ohi dena. Gainera, erabilera eremuak mugatu(ago)ak eta erabiltzaileak ikasiagoak izan ohi direlarik (daitezkeelarik behintzat), arauaren hedatzea errazagoa da (Oñederra, 1994a).

## 2.2. EBAZ arauak nola ulertu

EBAZa arau zerrenda bat baino, ahoskera estandar zaindurako gomendio edo gida bat litzateke (Oñederra et al. 2015). Hori garbi erakusten da arauak planteatzeko eran, izan ere, ez da bakarrik ahoskera zaindurako arauak ematen, baizik eta, ahozkoak duen aldagarritasuna kontuan harturik, aukera bat baino gehiago ematen dira. EBAZ arauen artean lau mota bereiz daitezke aldagarritasunari ematen dioten aukeraren arabera (Oñederra et al., 2015):

a) arauak artamendatukoa edozein hizkera-mailatan da onena. Esaterako<sup>2</sup>: I. bost bokal nagusiei berez dagokiena; V, kontsonanteei dagokiena edota, V.2, gaztelaniatikako maileguetako *z*-ri dagokiona; V.4, frantsesetikako maileguetako *r*-ari dagokiona.

b) ahoskera zaindurako artamendatukoak gainerako hizkera mailetan ere erabil litezke. Esaterako: V.1, *ge* eta *gi* bilkurei dagokiena edota V.2, *s-z* bereizkuntzari dagokiona.

c) arauak ahoskera zaindurako artamendatutakoarekin batera, etxeko edo ikasitako euskalkiaren bestelako aukerak gogoratzen dituzte. Esaterako: II, bokal bilkurei dagokiena II.a eta II.b azpiatalek osatua; edota, V.3, bokalartean mututu daitezkeen kontsonanteei dagokiena

---

<sup>2</sup> Hurrengo adibideetako zenbaki erromatarrak EBAZ arauari lotzen zaie. EBAZ arauak osorik ikusi nahi badira eranskinera jo daiteke.

d) euskalkien araberako ahoskera desberdinak onartzen dira Batuaren maila zaindurako. Esaterako: I. arauak *ü* bokalari dagokion zatia, edota VII, (des)palatalizazioari dagokiona.

Arauk buruz ikasi baino, garrantzitsuagoa litzateke hiztunak aldagarritasunaren kontzientzia hartzea eta arauen izaera malguaren ideia ondo ulertzea. EBAZ arauen izaera malguak, bi ardatzetan du iturri: geografikoa eta funtzionalaeta arauen zerrenda eman baino lehengoko ‘*atarikoak*’ atalean aniztasun horren berri ematen da. Aldakortasun geografikoari dagokionez, aintzat hartzen da euskarak duen aberastasun dialektala eta hori honela adierazten da 1998ko txostenean:

Euskalki ezberdinetatik datorkigun nahitaezko aniztasuna eta, EBAZ erabiltzean, ezberdintasun minimoak izango direnak (...). Aniztasun hori gaindiezina da hizketa berri bat asmatzen ez bada behintzat eta ez da euskara berri bat asmatu nahi, duguna erabilera zaindurako baliabidez jantzi baizik. (Euskaltzaindia, 1998: 805)

Era berean, aldagarritasun estilistikoari dagokionez, kontuan hartzen da baita ere egoeraren arabera hizkera egokitzen dugula eta beraz, hizketa malgua dela egokiena:

Bada hizkuntzaren bizi-iturri den aniztasunaren beste alderdi garrantzitsu bat: hiztun bakoitzarengan gertatzen dena. Hizkuntzaren funtsezko ezaugarri da, izan ere, hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriei, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea. (Euskaltzaindia, 1998: 806)

Beraz, batzordeak ez du ahoskera bat eta bakarra proposatzen, baizik eta, alde batetik, euskalkien ahoskeraren hesiak ez bortxatzea zaindu da: hau da, ez zaio inori fonemarik gehituko ez debekatuko<sup>3</sup> EBAZen izenean. Bestetik, aldagarritasun estilistikoa kontuan hartuz, hizkera-mailaren arabera ahoskera bat baino gehiago proposatzen dira. Hau da, hizkera jasorako arauak ematen dira baina beste hizkera mailetako ahoskerak ere onartzen dira, betiere egoerak hala eskatzen duenean.

Hau ikusirik, bakoitzaren etxeko euskaratik erabilera zaindueneraino etengabeko *continuum* bat (Oñederra et al. 2015) osatu beharko lukete euskararen ahoskera guztiek.

---

<sup>3</sup> Baudaude salbuespen batzuk: alde batetik, balio sinbolikoagatik eta galzorian dauden unitateak sendotzeko asmoz. Esaterako, <s/z> bereizkuntza egitea hobesten da (txistukarien neutralizazioa gertatzen euskalkien kasuan). Bestalde, erdal eraginei bidea estutzeagatik ez dira onartze /R/ edota /θ/ ahoskerak, nahiz eta gaur egun hiztun askoren fonema inbentarioko unitateak izan.

Hau da, egoerak hala eskatuta, ahoskera EBAZ arauetatik gertuago edota urrunago egongo da: ‘Esate baterako, herrikoentzat emandako hitzaldi batek ez ditu, nahitaez, euskaldun guztientzako Lehendakariak bete behar lituzkeen adina ezaugarri hartu behar EBAZetik.’ (Oñederra et al. 2015: 526).

### 2.3. Ahoskera estandarra eta herri hedabideak

2. atalean esan dugunez, euskararen ahoskera estandartzearen arrazoietakoa bat ikus-entzunezko hedabideetan dago, izan ere, EITB-ren (1982) sorrerarekin ahoskera jaso eta neutro baten beharra ikus zuten: ‘Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori’ (Euskaltzaindia, 1998).

EITB-z gain euskaraz ari diren beste ikus-entzunezko hedabideak ere baditugu, baina denek ez dute hedadura bera. Ikus-entzunezko hedabideez eta bertan jorratzen diren hizkerez ari garela bi hedabide mota bereizi behar dira hedaduraren arabera, zein hizkera-maila erabili beharko litzatekeen bereizten laguntzen baitigute: nazioko hedabideak alde batetik, eta bestetik, herri edota eskualde hedabideak. Hedadura osoa duten hedabideei dagokienez, hizkuntza-komunitate osoari zuzentzen zaie eta euskalki desberdinetako entzuleak biltzen ditu (hemen EITB talde publikoa sartuko litzateke, euskaraz bi telebista kanal eta bi irrati kanal dituen). Mota honi dagokionez, ‘estandar nazionala’ egin beharko litzateke Zuazoren (2000) ustez. Hau da, EBAZ arauetatik gertuen behar luke hedadura nazionala duten hedabideetako ahoskerak.

Bigarren motakoak ordea, hau da, tokian tokiko hedabideak, entzulego mugatuagoa du eta euskalki bera partekatzen duena biltzen dute. Gainera, gertuagoko gaiak jorratzen dira eta maiz gazteentzako saioak biltzen dira hauetan. Beraz hedabide mota hauetan ez luke zentzu handirik “nazioko batua” egitea. Zuazoren (2000) adibidea hona ekarriz, Arrasate Telebista aipatzen du, non “nazioko batua” egiten den, eta honela dio:

Zentzugabea da berriemaileek <y> ahoskatzea, arrasatearrek <j> ahoskatzen dutenean, hau da, <yan> edo <yokatu> esatea, arrasatear guztiek <jan> edo <jokatu> esaten dutenean.(...) Lotsa areagotzea, norbere buruarekiko konfiantza eta ziurtasuna galtzea eta geroz eta euskara hotzagoa eta motzagoa egitea izan ohi dira jokabide horren ondorioak. (Zuazo, 2000: 176)

2.1 atalean aipatutakoa gogoratuz, ahoskerari alderdi fisiko naiz emozionalak eragiten diote. Segurtasunez ahoskatzen eta hitz egiten ez duen laguna ez da bere buruaz ziur sentitzen eta entzuten duen hura xuxen deskodetzen ez duen hiztuna ere ez da ongi sentitzen (Camino, 2015).

Hizkera arduragabea ere ez litzateke egokiena tokian tokiko hedabideetan, izan ere, entzuleen ulergarritasuna helburu, hizkera jaso hobesten da. Hori ikusirik, *Euskalkiak eta Komunikabideak* (2007) lanean Zabaletak “euskara batu bateratua”<sup>4</sup> eta euskalki jasoaren erabilera proposatzen ditu tokian tokiko ikus-entzunezko hedabideetarako. Hala ere, saio bakoitzaren ezaugarriak ere baldintzatuko du hizkera-maila, izan ere, ez da berdina berri-emanaldi batean eskatzen den formaltasuna edota elkarrizketa batean; eta are gutxiago gazteei zuzendutako entretenimenduzko saio batean.

Korpusa biltzeko baliatu dudana *Xorroxin Irratiari* dagokionez 80ko hamarkadan Errantzun euskara hutsean sortutako irratia da. Denborarekin inguruko zonaldeetara hedatuz joan da bere emisioa eta egun Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirriak biltzen ditu. Beraz, tokian tokiko hedabide moten artean kokatuko litzateke. Hizkera-mailen *continuum*-aren ideia hona ekarriz, nazioko hedabideetako berri-emaile batek EBAZetik gertuen egon beharko litzatekeen bitartean, tokian tokiko hedabideetako berri-emaile batek ez luke EBAZetik lehenak bezain bat ezaugarri hartu behar. Izan ere, bakoitza zeini zuzentzen zaion kontuan harturik, lehena euskalki desberdinetako publikoari zuzentzen zaio eta beraz, hizkera jaso eta batu bat litzateke gomendagarria. Bigarrena, hizkera jaso bai (saioaren ezaugarriengatik) baina euskalki bera partekatzen duten publikoari zuzentzen zaionez, euskalki kutsua ere izan lezake. Era berean, lehen esan bezala, saio motak ere baldintzatuko du hizkera-maila. Izan ere, hizkera jasoagoa eska dakioke berri-emaile bati elkarrizketatzaile bati baino, eta azken honi jasoagoa umorezko saio bat egiten duenari baino. Hala ere, zaila da hizkera-mailen arteko mugak zehaztea eta mugak jartzea.

---

<sup>4</sup> “Euskara Batu bateratua” Zuazok “eskualdeko batua” deiturikoa litzateke, hau da, Euskara Batuaren egitura manteduz tokian tokiko ezaugarriak egitea.

### 3. Bilakabide fonologikoak: *Fortitio* eta *lenitio* bilakabideak.

Lan honetan Lesakako hizkera oinarri hartuta, ahoskera arduragabeen eta ahoskera jasoan gertatzen diren bilakabide fonologikoak aztertuko ditut. Fortitio/ lenitio banaketa egokia izan daiteke korpusaren analisirako eta ardatz hau kontuan hartuko dut korpusaren analisia egiterakoan. Izan ere, hizkera arduragabeen lenitio edo ahultze bilakabideak ugaritzen diren bitartean, hizkera jasoan fortitio edo indartze bilakabideak ugaritzen dira.

Fonologia naturalaren oinarritzko tesiaren arabera, hizkuntzen hots biziak, bai hiztun bakoitzak garatzen dituen eran, bai denboran zehar erakusten duten bilakaeran, giza ahoskatze eta oharmen indarren eraginpean daude eta mugatzen dituzte. Teoria honen bertsio modernoagoen arabera, indar horiek bilakabideen bidez adierazten dira (Donegan & Stampe, 1979)

Bilakabide fonologikoak zailtasun fonetikoak gainditzen dituzten ordezkatzeko mentalak dira. Hala ere, ordezkatzeko mentalak izan arren, zailtasun fonetiko fisikoei erantzuten diete (Donegan & Stampe, 1979), oharmen edota ebakera zailtasunak gainditzen baitituzte.

Zailtasun fonetikoak gainditzen dituztelako dira unibertsalak, hiztun guztiek oharmen eta ahoskatze ahalmen antzekoak ditugun aldetik. Hala ere, nahiz eta unibertsalak izan, hizkuntzatik hizkuntzara desberdin agertuko dira:

But though universally motivated, a process (e.g. obstruent devoicing) may apply or not in a given language-or it may apply in various forms or with different degrees of completeness in different languages. It can be limited or suppressed in language-particular-or for that matter speaker-particular- patterns, and these limitations follow universal implicational conditions regarding which configurations are most susceptible to a given substitution (Donegan, 2002)

Hizkuntza jakin bateko sistema fonologikoa hizkuntzaz jabetzen ari den haurraren bilakabideen sistema unibertsaletik gelditu dena da. Hau da, haur horrek pixkanaka bilakabide batzuk mugatuko ditu eta beste batzuk gainditu. Eta sistema unibertsaletik gainditu eta mugatutako bilakabide horien emaitzak hizkuntza jakin horren fonema inbetarioa osatuko du.

Adibidez, trabarien ahoskabetzea bilakabide unibertsala litzateke. Ebakera aldetik, kontsonante trabariak ahoskatzeko ahoskordek dardar ez egitea errazagoa da. Euskararen kasuan bilakabide hau mugatu egin da herskarietan eta horregatik ditugu herskari ahoskabe eta ahostunak. Frikari eta afrikatuen kasuan ordea, bilakabidea mantendu egin da eta horregatik euskaraz (zuberera salbuespen) frikari eta afrikatu ahoskabeak ditugu bakarrik (Jauregi, 2007: 228). Bilakabide hauek maila paradigmaticoan gertatzen dira. Paradigma hiztunen memoria izanik, bilakabide paradigmaticoek hiztunak memorian dituen hotsak egituratzen dituzte. Bestalde, bilakabide sintagmatikoak genituzke, pentsaturiko mezua hots kate fisikoa bihurtzen denean, hain zuzen ere<sup>5</sup>.

Bilakabide moten artean hiru mota nagusi bereiz daitezke bakoitzak betetzen duen funtzioaren arabera, bilakabide prosodikoak, fortitio edo indartze bilakabideak eta lenitio edo ahultze bilakabideak (Donegan & Stamp, 1979). Lehenengoei dagokionez, bilakabide prosodikoak, hiztunak pentsatzen duen mezua lastertasun, doinu edo erritmo jakin batean txertatzerakoan gertatzen dira.

Fortitio eta lenitio bilakabideak, oharmenezko eta ebakera zailtasunak gainditzen dituzte. Fortitio edo indartze bilakabideak tasun-konbinaketa hobea izaten dute emaitzatzat, hots unitate edo hots bilkura hobea, oharmenari mesede eginez. Hala ere, batzuetan hots unitate edo bilkura hori, oharmenerako errazagoa izateaz gain, ahoskagarriagoa ere egiten du. Indartze bilakabideak ingurunegabeak<sup>6</sup> izan daitezkeen arren, prosodikoki gune indartsuetan gertatu ohi dira, hau da, silaba hasieran edota azentudun silabetan, Donegan & Stampe-ren (1979) hitzak ekarriz: 'Some fortition processes may apply regardless of context, but they are particularly favored in 'strong' positions, applying especially to vowels in syllable peaks and consonants in syllable onsets, and to segments in positions of prosodic prominence and duration'. Indartze bilakabideen artean, disimilazioak, eransketak edota bokal bakarraren luzatze edo diptongatzeak leudeke.

---

<sup>5</sup> Bilakabide paradigmaticoak ingurunedunak edo ingurunegabeak izan daitezke. Hau da, ingurunedunak izango dira, hots ordezkatzeko inguruko hotsek eraginda gertatu den, eta ingurunegabeak, hots ordezkatzeko inguruneak zeresanik ez duenean. Bilakabide sintagmatikoak ingurunedunak izango dira beti.

<sup>6</sup> Hauek maila paradigmaticoan gertatzen dira eta bilakabide hauen emaitza fonemak edo hots unitateak dira.

Lenitio edo ahultze bilakabideen bidez ordea, tasun konbinaketa ahulagoak lortzen dira horien arteko artikulazio distantzia murriztuz, horrela zailtasun artikulatoriak gaindituz, hots unitate edo bilkura ebakierrazagoak lortuz, hain zuzen ere. Ahultze bilakabideak ingurunedunak izan ohi dira eta gune prosodiko ahulagoetan gertatu ohi dira, azentutik urruti dauden silabetan eta silaba ixten duten kontsonantetan, adibidez. Hauen artean, asimilazioak, monoptongaketak, hots ahultze edo kenketa leudeke, besteak beste.

Bestalde, ahultze bilakabideak hizkera arduragabeen gertatu ohi diren bitartean, indartze bilakabideak hizkera zaindu eta formaletan gertatzea da ohikoena. ‘Hemen elementu asko nahasten dira (abiadura, ingurune soziala, erregistro edo hizkera, e.a.). Gehien gehienetan elkarrekin lotuak doaz: azkarrago hitz egiten denean arreta txikiagoz ahoskatzen da, normalean egoerak komunikazioa ziurtatzen duelako, entzulea ezaguna delako, e.a. Orduan katea fonikoa iluntzen, ahultzen duten bilakabideak gerta daitezke eta ebakera erosoaga da.’ (Oñederra, 1986). Egoera formalagoetan ordea, mezuari enfasia eman ohi zaio, esan nahi dena entzuleak ondo jasotzen duela ziurtatuz. Egoera hauetan beraz, oro har, entzulearen oharmena helburu izanik, indartze bilakabide gehiago gertatu ohi dira.

Hala ere, ahultze edo lenitio bilakabideak egoera arduragabeetan eta indartze bilakabideak egoera formaletan gertatu ohi direla esan badugu ere, sailkapen hau ez da erabatekoa. Izan ere, nahiz eta bilakabide jakin bat emankorragoa izan hizkera arduragabeen hizkera zaindura ere hedatu ahal da, bilakabide bera bi hizkera estiloetan gertatuz. Hala ere, normalean bilakabide jakin bat hizkera arduragabeen areagotu edota zabaltzen da, baina ez beti era berean (Oñederra, 1986): Esaterako, gerta daiteke bilakabide jakin bat hots gehiagotan gertatzea hizkera arduragabeen hizkera zainduran baino. Era berean, hizkera jasoan testuinguru jakin batean gertatzen den ordezkatzeari hizkera arduragabeen testuinguru gehiagotara zabaltzea, edota, hizkera zainduran morfema mugan gertatzen den aldaketa hizkera arduragabeen edozein lekutan gertatzea.

Azkenik, hizkera zaindurako arau-gomendioak ematerakoan aintzat hartu ziren fortitio eta lenitio bilakabideak, lehenak hobetsiz hizkera zaindurako, hau baita fortitioen gertaleku naturalena. Hala ere, dialektologikoki zatituegiak diren kasuetan batasunari eman zitzaion garrantzi gehiago. Adibidez, <ia, ua> bokal bilkuretan EBAZ arauak hizkera jasorako bere horretan mantentzea gomendatzen dute, eransketa beharrean



(mendia vs. mendiya, mendixa, mendiza). Fonologikoki hizkera zaindurako eransketa litzateke gomendagarria, indartze bilakabidea baita. Hala ere, euskalki desberdinetan eransketaren gauzatze fonologiko desberdinak gertatzen direnez, eta gainera ez denez euskalki guztietan gertatzen batasunaren izenean ez zen eransketa gomendatu hizkera zaindurako (Oñederra et al., 2015).

## 4. Korpusaren azterketa

### 4.1. Korpusaren deskribapena

Lehenago aipatu dudan bezala, Lesakako hizkera jasoaren eta lagunartekoaren ahoskeran gertatzen diren bilakabideak aztertuko ditut. Lesakako aldaeran oinarritu naizenez, bildu ditudan hots guztiak lesakar hiztunenak dira. Bestetik, hizkera jaso eta lagunartekoa biltzerakoan bi iturrietara jo dut: hizkera jaso biltzeko *Xorroxin Irratiaz* baliatu naiz; eta lagunarteko hizkera jasotzeko bi lesakar elkarrizketatu eta grabatu ditut.

Esan bezala, hizkera jasoagoa biltzeko *Xorroxin Irratian* egiten diren saioak gordetzen diren webgunera (<https://erran.eus/irratia/>) jo dut, itxuraz irratia eskatzen duen egoera formalagoatik. Zehazki *Xorroxin Irratia*-ko “Xorrotx eta fin” saiotik hartu dut lagina. Saio hau goizetan 8:30- 14:00ak bitartean emititzen da astelehenetik ostiralera, eta bertan orduz orduko albisteak, iritziak, elkarrizketak etab. biltzen dira.

Hizkera jasoaren korpusa biltzeko proposena albisteak lirateke, saio mota honek eskatzen duen seriotasuna eta neutrotasunagatik. Hala ere, hauek ez ditut *Xorroxin Irratiaren* webgunean topatu. Beraz, gizarteko gaurkotasun-gaiak ardatz harturik 2-3 minututan emandako iritziak bildu ditut. Hau da, alde aurretik paperean prestaturikoak eta irakurtzearen laguntzaz ekoiztutakoak. Bi hizlari desberdinen iritzi bina bildu ditut: Miren Rubio (35 urte) eta Mikel Rodriguez (36 urte) kazetari lesakarrena hain zuzen.

Lagunarteko hizkerari dagokionez, Lesakako bi hiztunen solasa grabatu dut: Joxe Angel Zubiria (47 urte) eta Andoni Zubiri (27 urte). Biak Lesakan jaiok dira, familia euskaldunetan. Joxe Angel Zubiriaren kasuan bi gurasoak lesakarrak dira, eta Andoni Zubirirenak ordea, ama lesakarra da baina aita Baztangoa.

Grabaketa egiteko bakoitzaren etxera hurbildu nintzen. Kanpoko hotsik ez entzuteko eta bi elkarrizketa laguneren ekoizpen hotsaren kalitatea ahalik eta onena izan zedin gela itxi batean egin genuen grabaketa. Bakoitzari gai bat eman eta horren inguruan hitz egiteko eskatu nien. Iraupenari dagokionez, grabaketa bakoitza bost minutukoa da.

## 4.2. Datuak

Atal honetan korpusetik ateratako datuak aurkeztuko ditut<sup>7</sup> EBAZ arauen hurrenkera jarraituz<sup>8</sup>, arau bakoitzean, lehenik, hizkera jasoari dagozkion datuak emango ditut, eta ondoren hizkera arduragabeari dagozkionak. Bildutako datuak idazkera ortografikoan aurkeztuko ditut, soilik atal bakoitzean aztergai den hotsa edo hots bilkura transkribatuz. Izan ere, puntu bakoitzean gertakizun fonetiko batetaz eta ez hitz osoan gertatzen denaz arituko naiz.

### BOKALAK

- 1) (I.) <a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

#### Bokal bilkurak

- 2) (II.a.) <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: etxia, etxie; geruago, telefonua eta kidekoak).

/ea/→[ea]

---

<sup>7</sup> Datuak aurkezterakoan zenbaketa bikoitza egin dut. Alde batetik, zenbaki latinoz nire zenbaketa egin dut, analisisa egiterakoan (4.3 atalean) zenbaketa honen arabera antolatu baitut. Bestetik, parentesi artean EBAZ arauari dagokien zenbaketa jarri dut.

<sup>8</sup> Puntu bakoitza aurkezterakoan dagokion EBAZ araua jarri dut, nahiz eta batzuetan laburtuta eman dudana. EBAZ arauak osorik ikusi nahi izanez gero, bigarren eranskinean bere horretan jarri ditut.

- Hizkera jasoak: *jend[ea], ikustarazt[ea], errat[ea], pentsatz[ea], egot[ea], guttien[ea]n, protestatz[ea], egit[ea], normalitat[ea], eskubid[ea], langil[ea]k, zuten[ea]n, dittugun[ea]n, bet[ea]n, normalidad[ea]z, egot[ea], den[ea]n, urt[ea], izat[ea], prekaritat[ea], lan[ea]n, emakum[ea]k, etx[ea]n*. Baina, *egitt[ia], jend[ia]* eta *iragan[i]n, den[i]n, eskubid[i]k, aintzin[i]n, bat[i]n*.
- Hizkera arduragabea: *bestazal[ia], pasats[ia], jend[ia], astiart[ia], egitt[ia], elkartz[ia], bertz[ia]; eguld[i]k, argazk[i]k, astiart[i]n, azke[i]n, atsald[i]n, solas[i]n, baren[i]n, barren[i]n, jend[ia], gur[ia], sukald[i]n, lan[i], solas[i]n, barren[i]n, azken[i]n*. Baina, *bid[ea]*.

#### **/oa/→[oa]**

- Hizkera jasoak: *munstr[oa], publik[oa]n, etik[oa]k, terrorism[oa], posizi[oa], anarkism[oa]ren, sozialism[oa]ren, komunism[oa]ren, tamainak[oa], mobilizazi[oa], madarikazi[oa]k, soziolog[oa]k, pentsi[oa]k, urtek[oa], alferrikak[oa]k, salbazi[oa], publik[oa]*. Kontrakorik ez.
- Hizkera arduragabea: *ard[ua], sagard[ua], zat[ua], tipik[u]a, auz[ua], esper[u]n, emeng[ua]; erderaz[u]k, garaitak[u]k, euskarazk[u]k, lenagok[u]k, aspaldik[u]k*. Kontrakorik ez.

3) (II.b) <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: mend**ia**, mend**ixa**, mend**iza**; bur**uba** eta kidekoak edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: mend**ie**, mend**i**; bur**ue**, bur**u** eta kidekoak).

#### **/ia/→ [ia]**

- Hizkera jasoak: *euskal herr[ia]k, utop[ia], fantas[ia], ideolog[ia], poliz[ia], neurri[ia]n, agintar[ia]k, nagus[ia]k, politikar[ia]k, kazetar[ia]k, ikerlar[ia]k, euskal herr[ia]n*. Kontrakorik ez.

- Hizkera arduragabea: *argazk[ia]*, *bortzir[ia]k*. Baina, *argazk[i]k*, *berex[i]k*, *egurd[i]n*, *eg[ija]*, *guzi[j]in*.

**/ua/ → [ua]**

- Hizkera zaindua: *bur[ua]*, *govern[ua]*, *ord[ua]n*, *kont[ua]*, *meats[ua]*, *punt[ua]n*, *mund[ua]n*, *kas[ua]n*, *esfortz[ua]k*, *bax[ua]k*, *berand[ua]go*, *kas[ua]n*, *mod[ua]*, *ingur[ua]n*. Kontrakorik ez.
- Hizkera arduragabea: *aditt[ua]*, *mod[ua]*, *bat[ua]*, *azent[ua]*. Baina, *ord[u]n*, *soin[u]k*, *ingur[u]n*.

4) (III.1.) Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenengoa <i> edo <u> bada, bokal bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: *abi.an*, *sozi.ala*, *zi.ur*).

(III.2.) Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hiztunengan hizkera zaindutat hartuko da ahoskera hori.

- Hizkera jaso: *gutx[i.a]gorako*, *ord[u.a]n*, *al[i.a]tutzat*, *ondor[i.o]ztatu*, *justifikaz[i.o]*, *lar[i.a]gorik*, *or[i.e]k*, *pents[i.o]ak*, *d[u.i]na*, *al[i.a]ntsa*. Baina, *test[u]ngururik*, *b[jo]lentzia*, *soz[ja]l*, *posi[jo]*, *naz[jo]nalistek*, *judiz[ja]l*, *esfort[wa]k*, *soz[jo]logoak*, *behob[ja]*, *madarikaz[jo]*, *mobilizaz[jo]*, *grez[ja]*, *galiz[ja]*, *famil[ja]ren*, *salbaz[jo]*, *prekar[jo]*, *hor[je]tako*.
- Hizkera arduragabea: *konf[i.a]ntsa* eta *ast[i.a]rtin*. Baina, *kord[jo]n*, *ast[ja]rtin*, *kont[wa]*, *mod[wa]*; *eg[u]ldi*, *eg[u]rdi*, *guz[i]tatik*.

5) (IV.) Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hiztunek ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzera joko dute hizkera-maila zainduan (hala nola: *za.harra*; *na.hi du*; *bi.hurturik*; *a.hula*; *be.hi*).

- Hizkera jasoak: *z[a.a]rrenetakoa, l[e.e]nago, b[i.u]rtu. Baina, n[aj], ez[oj]ko, ge[ja]go, z[a]rragoak, [a]ntzi, ge[ja]go, erran[aj], [oj], bederatzir[ew]n*
- Hizkera arduragabea: *g[ej]ena, m[a]jak, [oj]ttura, [wa]rtu, l[e]nagoko, g[ej]ago, z[a]r. Kontrakorik ez.*

## KONTSONANTEAK

6) (V.1.) <g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*).

- Hizkera jasoak: *jendila[x]e, despresti[x]iatzeko, idiolo[x]ia, ele[x]etebei (LGTBI), [x]enero, a[x]enda. Kontrako adibiderik ez.*
- Hizkera arduragabea: *ele[x]itzen.*

7) (V.2.) <s, z> eta <ts, tz> Hizkera zainduenatarako pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde <z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistikaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelerazko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

### <s, z>

- Hizkera jasoak: *iku[s]tara[s]tea, [s]alba[s]ioa, nagu[s]iak, pi[s]tu, [s]utela, gi[s]arte, fanta[s]ia, [s]eguru, [s]o[s]ialia[s]moa, ju[s]tifika[s]io, e[s]pa[s]io.*
- Hizkera arduragabea: *[s]ola[s]teko, de[s]berdin, a[s]paldikuk, be[s]ta, [s]ukalde; [s]uk, [s]u[s]en[t]en, arga[s]ki, ba[s]tan, eu[s]kara[s]ko.*

### <ts, tz>

- Hizkera jasoak: *ber[t]e, ai[t]inean, auni[t], pen[t]a[t]ea, pen[t]ioak.*

- Hizkera arduragabea: *i[t̪]ak, ibil[t̪]en, bor[t̪]irik, a[t̪]aldin.*

### **Maileguetako <z>**

- Hizkera jasoa: *e[̺]kandali[̺]atua, a[̺]nar, [̺]o[̺]iali[̺]moa, po[̺]i[̺]ioa, na[̺]ionali[̺]ta, judi[̺]ial, de[̺]ente, [̺]o[̺]iologoak, gre[̺]ia, gali[̺]ia.*  
Kontrakorik ez.
- Hizkera arduragabea: *a[̺]entua, a[̺]ento.* Baina, *a[θ]ento*<sup>9</sup>.

8) (V.3.) <b, d, g, r> bokalar-tean gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desager edo alda daitezke hizketa arduragabean (hala nola: *ari naiz ai naiz, horiek (h)oiiek, egon eon, edan ean, eran, etab*). Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokalar-teko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira.

### **<d>**

- Hizkera jasoa: *a[ð]ittu, behar a[ð]ina, a[ð]ittu, e[ð]o, e[ð]ozein.*  
Kontrakorik ez.
- Hizkera arduragabea: *ba[ð]una, e[ð]errin, a[ð]itzen, e[ð]ozein, e[ð]o.*  
Baina, *[diate]*

### **<g>**

- Hizkera jasoa: *e[ɣ]un, a[ɣ]ertu, gutxia[ɣ]rako, na[ɣ]usia, larria[ɣ]orik, e[ɣ]inen, se[ɣ]ituko, e[ɣ]otea, e[ɣ]itea, a[ɣ]intariak, aile[ɣ]atu, da[ɣ]oen, horre[ɣ]atik, se[ɣ]ituko, se[ɣ]urtatzen.* Baina, *ingabe.*
- Hizkera arduragabea: *e[ɣ]ur-din, e[ɣ]uldi, da[ɣ]o, e[ɣ]in, sa[ɣ]ardua, se[ɣ]itzen, se[ɣ]uraski, e[ɣ]un, gutti[ɣ]o.* Baina, *[in], [ajt̪], [ewna].*

---

<sup>9</sup> Gaztelera-zko esaldi molde batean ekoiztua: [ma̺ ke aθento].

### <r>

- Hizkera jasoa: *etzi[r]elako, o[r]ain, idu[r]i, ho[r]i, kasu[r]ik, duda[r]ik, ho[r]i, ho[r]ixe, o[r]ain*. Baina *ho[j]ek*.
- Hizkera arduragabea: *ne[r]etzat, a[r]i, o[r]i, di[r]en, ne[r]e, a[r]i, ge[r]o, idei[r]ik, o[r]i*. Baina, *at[ej]tsen, [wa]in,[oa]in, [ne], [ne]tzat*.

9) (V.4.) euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

- Hizkera zaindua: *biga[r]ena, e[r]ita[r], azka[r]tu, be[r]tze, gau[r], a[r]azo, hau[r]a[r]ekin, pa[r]atu*.
- Hizkera arduragabea: *base[r]ita[r]ak, k[r]ixton, u[r]te[r]o, o[r], i[r]u, a[r]antza*.

10) (VI.) <h> Letra hau ahostuna den Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra ahoskabea den Hegoaldeko euskalkietako hiztunen ahoskera zainduan ere ez da ahoskatuko.

Lesakako hizkeran /h/ ahoskera ez dagoenez, espero bezala, bi hizkera-mailatan ez dute hasperena egin.

11) (VII.) <il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —**milla**— da eta ez <y> —**miya**—). Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere.

### /iI/ → [ʎ]

- Hizkera jasoa: *i[ʎ]abete, jendi[ʎ]axe, langi[ʎ]een, mi[ʎ]aka, madri[ʎ], bimi[ʎ]a, zaintza[ʎ]e, laguntza[ʎ]e, langi[ʎ]eak, ixi[ʎ]ik*. Kontrakorik ez.

- Hizkera arduragabea: *kwadri[ʎ]an, ga[ʎ]eta, pi[ʎ]a, dabi[ʎ]a*. Baina, *urbi[l]*.

**/in/→ [ɲ]**

- Hizkera jaso: *aitzi[ɲ]eko, oaj[ɲ], adi[ɲ]ako, ba[ɲ]a, esku[ɲ]eko, tama[ɲ]akoa, i[ɲ]oizko, aintzi[ɲ]in*. Baina, *orai[n]*.
- Hizkera arduragabea: *edozei[ɲ]ek, aj[ɲ], desberdi[ɲ]ak, san fermi[ɲ]ak, soi[ɲ]uk*. Baina, *oraj[n]*.

12) (VIII.) <j> grafemaren ahoskera oinarritzkoa <y> da eta hori hobesten da hizkera jasorako hobesten den ahoskera.

- Hizkera jaso: *[j]ende, [j]o, [j]ustu, [j]udizial, [j]aiotze, [j]arranturik*. Baina, *[x]ustifikazio*.
- Hizkera arduragabea: *[j]arri, [j]endia, [j]otzen*. Baina, *ba[x]atzen*.

13) (IX.1.) <x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu, xoxo, Xabier*.

- Hizkera jaso: *gi[ʃ]an, i[ʃ]ilik, ba[ʃ]uak, ga[ʃ]otu*.
- Hizkera arduragabea: *bere[ʃ]ik, gi[ʃ]a*.

(IX.2) <x> Maileguetan bokalartekoa <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (hala nola: *sexua seksua, taxian taksian, faxez faksez*). Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira. Horietan ere [ks] ahoskera egin daiteke.

- Hizkera jaso: *vo[kʂ], vo[kʂ]eko, e[kʂ]istituko*.
- Hizkera arduragabea: <x> duten maileguen adibiderik ez.



### Kontsonante bilkurak

- 14) (X.) <zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren ondorengo <b, d, g> kontsonanteak (aditz formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar dira (hala nola *ez da: ezta*).

#### **/b/ → [b] edo [p]**

- Hizkera jasoan *[b]adugu, ez [b]aduzu*

- Hizkera arduragabea: adibiderik ez.

#### **/d/ → [d] edo [t]**

- Hizkera zaindua: *ez [t]a. Baina, ez [d]uen, ez [d]uela, ez [d]akit, ez [d]u, ez [d]en, ez [d]ute, ez [d]uzue, ez [d]iot.*

- Hizkera arduragabea: *ez [t]akit, ez [t]a, ez [t]uela, ez [t]uzula, ez [t]ut, ez [t]u, ez [t]ugu, ez [t]izut, ez [t]ena, ez [t]agona. Baina, ez [d]ut.*

#### **/g/ → [g] edo [k]**

- Hizkera zaindua: *ez [g]altzeko, ez [g]ero, ez [g]aitezen. Kontrakorik ez.*

- Hizkera arduragabea: *ez [k]aude. Baina ez [g]ara.*

- 15) (XI.) <zz> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira afrikatua osatuz (hala nola: *ez zara: etzara; ez zetozele: etzetozele; ez zenion: etzenion; ez zuen: etzuen*).

- Hizkera zaindua: *e[tʃ]irelako, e[tʃ]ioten, e[tʃ]egoela. Kontrakorik ez.*

- Hizkera arduragabea: *e[tʃ]agozila, e[tʃ]ioten. Kontrakorik ez.*

- 16) (XII.) <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) afrikatu (<tz, ts>) egin ohi da euskaraz (hala nola *unibertsitate, Frantzia, faltsua*). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaretan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen: esantzuen; eman zion: emantzion*).

**/n̥s̺/ eta /n̥s̺/ → [nt̥s̺] eta [nt̥s̺]**

- Hizkera jasoa: *izan [t̥s̺]en, isan [t̥s̺]ula*. Baina, *izanen [s̺]inetela*.
- Hizkera arduragabea: *eranen [t̥s̺]ula, amatxikin [t̥s̺]agon, ibiltzen [t̥s̺]utena, gustatzen [t̥s̺]ait*. Baina, *gustatzen [s̺]ait*.

**/rs̺/ eta /rs̺/ → [rts̺] eta [rts̺]**

- Hizkera jasoa: *uniber[s̺]ala*
- Hizkera arduragabea : *konkur[s̺]ura*.

**/ls̺/ eta /ls̺/ → [lts̺] eta [lts̺]: ez dut adibiderik topatu.**

- 17) (XIII.) <zn, zl, zh> Ahoskera zaindurako ere ez adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere (alegia, *ez naiz: eznaiz* edo *enaiz*; *ez luke: ezluke* edo *eluke*; *ez haiz: ezaiz* edo *ehaiz*).

Honi dagokionez adibide bakarra topatu dut hizkera arduragabearen ekoizpenean: *[e]naizela*.

### 4.3. Datuen azterketa

Datuen azterketarekin hasi aurretik bi kontu aipatu nahi nituzke. Alde batetik, 2.4. atalean esan dugunez, *Xorroxin Irratia* tokian tokiko hedabidea izanik, ez du Euskal Herri osoa helburu, beraz analisisian hau kontuan izango dut EBAZen erabilpena interpretatzerakoan.

Bestetik, analisisian zenbait hotsei dagokienez portzentaiak jartzea esanguratsua iruditu zait. Hala ere, beste zenbaitetan portzentaiak ez jartzea erabaki dut: kontrako adibiderik ez delako egon, edota egotekotan, salbuespen bakarra izan delako.

- 1) Lesakako hizkera bost bokal sistemaz osatzen da: [a e i o u]. Hala ere, hitz katean ekoizterakoan, hurrengo puntuetan azalduko dudan moduan, disimilazioak, kenketak eta eransketak gertatu dira, batez ere, hizkera arduragabeen.
  
- 2) Hizkera jasoan bildutako datuen arabera ikus daiteke, hizkera jasoan ari diren esatariek /ea/ bokal bilkura, oro har, [ea] disimilaziorik gabe ahoskatu dutela. Nahiz eta kontrako adibiderik ere topatu dudana: *egitt[ia]* edota *iragan[i]n*. Hala ere, azkeneko hauek gutxiengoak dira (%13,79). Hizkera arduragabeko datuei begiratuz gero ordea, ekoiztutako /ea/ bokal bilkura guztiak [ia] disimilazioarekin ahoskatu dira, *bid[ea]* salbuespen bakarra izanik. /oa/ bokal bilkurari dagokionez, hizkera jasoan /oa/ → [oa] ahoskatu dute beti eta hizkera arduragabeen aldiz, /oa/ → [ua] ahoskatu dute, salbuespenik gabe. /ea/ eta /oa/ → [ia] eta [ua] disimilazioak fortitio edo indartze bilakabideak lirateke. Izan ere, /a/ bokal irekiaren antzekoagoak diren /e/ eta /o/ disimilatu egiten dira [i] eta [u] bokal itxien ordezkatzeari esker eta segmentu bakoitzaren distantzia artikulatorioa handitzen da, oharmenaren mesedetan. Disimilazioa indartze bilakabidea izanik, hizkera jasoan gertatzea da naturalena (Donegan & Stampe, 1979). Hala ere jasotako datuek erakusten dutenez, honako disimilazioak gehiago dira hizkera arduragabeen. Hau da, hizkera jasoan ari diren esatariek EBAZek gomendatutakoa bete dute. EBAZek <ea> eta <oa> bokal bilkurak hizkera jasorako, idatzi bezela ahoskatzea gomendatzerakoan batasuna zen helburu, izan ere, bokal bilkura hauetan gertatzen diren bilakabideak dialektologikoki zatituegiak dira.

Bokal arteko disimilazioaz gain, bada beste bilakabide bat ere beti gertatzen dena hizkera arduragabeen, eta neurri txikiago batean hizkera jasoan: /ea/ → [ia] eta /oa/ → [ua] disimilazioa gertaturik, bokal bilkura honi kontsonante batek jarraitzean /a/ bokala kentzen da: *eskubid[i]k*, *azken[i]n*; *esper[u]n*, *erderazk[u]k*. Hots bat kentzea ahultze edo lenitio bilakabidea litzateke, izan ere, katea laburtzen da ebakera erraztuz (Oñederra, 1986). Honi dagokionez, hizkera arduragabeen jasotako datuek erakusten dutenez, ahultze bilakabidea beti gertatzen da bai /ea/ → [i] eta bai, /oa/ → [u]-ri dagokionez. Hizkera jasoan

berriz, bilakabide hau erakusten duten adibide gutxi bildu ditut (%31,58), gehiengo (%68,42) /ea/→ [ea] izanik, eta /oa/→ [u] ordezkatzearen kasuan, ez dut adibiderik topatu hizkera jasoan.

- 3) /ia/ bokal bilkurari dagokionez, hizkera jasoan bildutako datuen arabera, esatariek, salbuespenik gabe, /ia/→ [ia] ahoskatu dutela erakusten dute, EBAZean gomendatzen den bezala.

Hizkera arduragabeko datuek erakusten dutenez, /ia/ bokal bilkurari dagokionez, bilakabide desberdinak gertatzen dira. Alde batetik, /ia/→ [ija] fortitio bilakabidea litzatekeen eransketa edo epentesia dugu, *eg[ija]* edo *guz[iji]n* adibideak erakusten duten moduan. Epentesia fortitio bilakabidea da, silaba egitura gordetzen laguntzen baitu (Oñederra, 1968). Bilakabide honek oharmenari laguntzen badio ere, esan daiteke ebakera ere errazten duela, izan ere, ebakera aldetik urruti dauden /i/ eta /a/-ren arteko artikulazio bidea egiten laguntzen baitu. Bestetik, bigarren puntuan azaldutako gertakari bera genuke: /ia/ bokal bilkurari kontsonante batek jarraitzen dioenean /a/-ren kenketa gertatzen da, /ia/→ [i] ordezkatzeara gertatuz: *argazk[i]k* eta *egurd[i]n* esaterako.

Eransketa edo epensiari dagokionari bueltatuz, [ia]/[ija] txandakatzea aurki dezakegu hizkera arduragabean. Hala nola, alde batetik *argazk[ia]* dugu baina bestetik, *egi[ja]*. Gamindek (1996) Lesakako azentuari buruz egindako lanean adierazten duenez, txertaketa erregela hitzaren azentuak baldintzatua da, hots, /i/ bokala azentuduna izaki, /y/ txertatzen da, ez bestela. Bestetik, eransketa gertatu denean eta inesiboak jarraitzen dioenean asimilazioa gertatzen da /a/→ [i], ordezkatzeari esker: *egij[a]* baina *guzij[i]n*.

/ua/ bokal bilkurari dagokionez, hizkera jasoan ekoiztutako guztiak [ua] bokal bilkuraren bidez izan dira, baita kontsonante batez jarraituriko inguruneetan ere: *bax[ua]k* edota *ord[ua]n*, adibidez. Hizkera arduragabean ordea, honako bokal bilkurari kontsonante batek jarraitzen badio, aurrekoetan bezala, /a/ kentzen zaio beti: *soin[u]k* edota *ord[u]n*.

- 4) Hizkera jasoan nahiz arduragabean, <i, u> bokalei jarraitutako bokalak hiatoan ahoskatu dituzte neurri handiago batean. Izan ere, hizkera jasoan bokal bilkura hauek %31,48 diptongoan eta hizkera arduragabean ere %32 diptongoan

ahoskatu dituzte. Hala ere, zenbaitetan diptongoa ala hiatoa zen bereiztea zaila egin zait. Hala nola, hizkera arduragabeen [aʃtjartia], [moðwa] edota [kontwa]; eta hizkera jasoan [batʃwek] edota [eʃfortswak] diptongoan edo hiatoak ahoskatu dituzten erabakitzeko zailtasunak izan ditut.

Honez gain, hizkera arduragabeen jasotako zenbait datuk erakusten dutenez, /i/ eta /u/ bokalei jarraitzen dioten bokala kentzen dira zenbaitetan: *guz[i]tatik*, *eg[u]ldi*, *e[g]urdi*. Azkeneko hau ahultze bilakabidea litzateke eta hizkera arduragabeetan suertatzen da naturalagoa.

- 5) Hizkera jatorako, <h>-a ez duten euskalkietan, bokal arteko /h/-a ahoskatu ez arren, hizkera jasoan bokal bakoitza silaba batean ahoskatzeko gomendatzen da EBAZen. Bildu ditudan datuen artean, hizkera jasoan %18,75 ahoskatu dituzte bokala luzatuz edota hiatoan, baina, ugariagoak izan dira diptongoan edota bokal bakarrez ahoskatutakoak. Hizkera arduragabeen berriz, denak bokal bakarrez edota diptongoan ahoskatu dituzte.

Hizkera zaindurako bokal bakoitza silaba batean ahoskatzea proposatu zen, batasuna eta bereizkuntza semantikoaren izenean, eta gainera hasperena ez duten zenbait hitzunek erregistro zainduetan hala egiten zutela ikusi zelako (Oñederra, 1994b). Gainera, fonologiaren aldetik begiraturik, *z[a.a]rrenetakoa* edota *l[e.e]nago* bezalakoetan, bokala luzatzerakoan hotsa nabarmendu egiten da, oharmen aldetik hobea izanik.

- 6) Bildutako datuek erakusten dutenez, hizkera jasoan eta arduragabeen /g/ → [x] igurzkari belarraz ahoskatu dituzte /i/ eta /e/ bokalak jarraitzen diotenean. Halako ahoskera mailegu hitzetan egin dira, hizkera jasoan: *[x]enero*, *despresti[x]iatzeko*, *a[x]enda*, eta arduragabeen: *ele[x]itzen*. Oro har, Hegoaldean [x]-ren ahoskera orokorra da halako maileguetan. Hala ere, EBAZek hizkera jatorako <i, e> aurrean /g/ → [g] ahoskatzea gomendatzen du.

- 7) Txistukariei dagokienez, euskaraz sei txistukari (frikari eta afrikatuak) saila dugu, aurkakotasun gehien duten euskaretan behintzat. Hala ere, zenbait euskalkietan txistukarien neutralizazioa gertatu da. Honela adierazten du Hualdek (2010: 101) gaur egungo txistukarien neutralizazioaren inguruan:

Esta es, pues, la situación actual: la neutralización de sibilantes, con seseo y tzetzeo, es general en todo el territorio occidental o de dialecto vizcaíno, se encuentra en parte del territorio de dialecto gipuzcoano pero con una gran irregularidad en su distribución geográfica y otros diferentes procesos locales de neutralización, y no se da en absoluto en territorio navarro ni al norte de los Pirineos (excepto que, como hemos indicado en una nota, s y x han empezado a confundirse en los últimos años, con xexeo, en hablantes que tienen el francés como lengua dominante). (Hualde, 2010:101)

EBAZen, txistukarien neutralizazioa dela eta, arauk euskalki hedatuenen fonema aurkakotasuna egitea hobesten dute hizkera jasoan, eta beraz, /s̺/ eta/s̺/ eta, /t̺s̺/ eta /t̺s̺/ arteko bereizketa egitea hobesten da hizkera jasoan.

Lesakako hizkeran euskara nafarra izanik (Zuazo, 2014) espero zen bezala, txistukarien arteko aurkakotasuna topatu dut nire korpusean bai hizkera jasoan eta bai arduragabeen. Eta hitz berean ere bi txistukariak (s, z) bereizten dituzte: /s̺]o[s̺]iali[s̺]moa, po[s̺]i[s̺]ioa, na[s̺]ionali[s̺]ta.

Honez gain, EBAZean maileguetako /θ/ hortzetakoa hizkera jasoan [s̺] hobikariaren lepokariaren bitartez ahoskatzea hobesten da. Bildutako datuen arabera halako maileguetan, /s̺/ ahoskatu dute beti, hizkera jasoan eta arduragabeen. Salbuespen bakarra topatu dut hizkera arduragabeen, a[θ]ento. Baina azkeneko hau gaztelerazko esaldi molde batean ahoskatu du hizlariak: [maʃ ke aθento]; eta euskaraz ari denean, hitz bera [s̺] hobikariaz ahoskatu du beti: a[s̺]entua eta a[s̺]ento. Txistukarien bereizketa indarrean dagoen hizkeretan, gaztelerazko /s̺/ euskaraz [s̺] egiten da eta gaztelerazko /θ/ euskaraz [s̺] egin ohi da, gazteleratik hartutako maileguetan, Hualderen (2010) hitzak ekarriz:

En estas zonas encontramos, en lengua vasca, una correspondencia sistemática entre la ese castellana y la vasca y entre la zeta interdental castellana y la zeta dental vasca en préstamos. (Hualde, 2010).

- 8) Bokal artean doazen /d/, /g/, /r/ ahultzen dira, batzuetan galtzeraino. Gerta daiteke ere ingurune berean /d/→[r] bihurtzea edota /r/→ [ð] bilakabidea gertatzea (Jauregi, 2007). Honako hau lenitio bilakabidea litzateke, izan ere, ahuldu eta galtzerakoan organo artikulatzaileek egin beharreko ahalegina txikiagoa da. Bilakabide hau ez da beti gertatzen, baina oro har, hizkera arduragabeetan areagotu ohi da.

Bildu ditudan datuetan aldagarritasuna nabari da bokal arteko /d/, /g/ eta /r/ artean. Herskari horzkaria ahostunari dagokionez, bokal artean /d/→ [ð] ordezkatzeari gertatzen da baina ez da galtzen hizkera jasoan zein arduragabeen, azken honetan, [djate] salbuespen bakarra izanik.

Bokal arteko /g/ herskari belarrari dagokionez, hizkera jasoan mantendu da, nahiz eta [in] salbuespena ere jaso den. Eta hizkera arguragabeen %16,82 kasutan galdu egin da.

Bokal arteko ttak-a hizkera jasoan ez da galdu, salbuespen bakarra, ho[j]ek. Eta lagunarteko hizkeran berriz, %10,04 kasutan galdu da.

Beraz, ikus daitekeenez, alde batetik, bokal arteko hiru kontsonante hauen kenketa ez da neurri berean gertatzen. Eta bestetik, kenketa ahultze bilakabidea emankorragoa da hizkera arduragabeen.

- 9) Espero bezala, bi hizkera-mailatan <r> eta <rr> hortzobikaria egin dute eta ez ahoskera ubularra, euskara-gaztelera elebidunak izanik, ahoskera ubularra ez baitute beraien hots paradigman. Gainera, 8. puntuan adierazi denez, hizkera jasoan bokal arteko ttak-a ez da galdu.
- 10) Lan honetan Lesakako ahoskera aztertu dudanez, espero bezala, hasperenaren adibiderik ez da bildu.
- 11) Bildutako datuen arabera, /i/ eta /j/ ondoren /l/, /n/→ [ʎ] [ɲ] kontsonanteetan asimilaziozko palatalizazioa gertatzen da, modu berean hizkera jasoan eta arduragabeen. Kontsonante hobikari edo horzkarien ahoskunea aurretik duen /i/ bokal edota /j/ bokalardiaren inguruneari asimilatzen zaionean gertatzen da. Hala ere, ez dira beti bustitzen, izan ere hitz bukaeran /i/ edo /j/ ondoren [l] eta [n] ahoskatu dituzte bi hizkera-mailatan.

Lenitio bilakabidea bada ere, hizkera jasorako EBAZen bi ahoskerak, palatala eta ez palatala onartzen dira. Eta ahoskera palatalari dagokionez albokari sabaikaria [ʎ] egin behar da hizkera jasoan eta ez [j] hurbilkari sabaikaria. Azken honi dagokionez, zenbaitetan bi hots hauen artean zein egin den bereizteko zailtasunak izan ditut.

- 12) Lesakako hizkeran <j> [j] hitz hasieran edota [j] ingurune jarraituetan ahoskatzen denez, espero zen bezala ia kasu gehienetan ahoskera sabaikariarekin egin dute. Maileguzko hitzetan ere, oro har, <j> sabaikaria ahoskatu dute hizkera jasoan: [j]udizial, [j]ustu; baina [x]ustificazio ere ahoskatu dute. Hizkera arduragabeen ere salbuespen bat topatu dut [x] ahoskerarekin: ba[x]atu.
- 13) Maileguetako <x> bokal artean eta hitz amaieran EBAZek dioenez, [ks] ahoskera hobesten da hizkera jasorako. Bildutako datuetan ikusi da hizkera jasoan EBAZek hobesten duena bete dutela. Hizkera arduragabeen, ordea, ez da adibiderik jaso.
- 14) Lagunarteko hizkeran ohikoa da herskari ahostunak aurreko txistukari ahoskabeari ahostuntasunean asimilatzea, /b, d, g/ → [p t k] ahoskabetuz. Hau asimilazioa edo lenitio bilakabidea bada ere, oharmenean ere eragina du, izan ere, oharmenaren aldetik hots unitate hobeak dira herskari ahoskabeak. EBAZek herskari ahostunak ahoskabetzea hobesten du hizkera jasoan zein gainontzeko hizkera mailetan.
- Jasotako datuen artean, ikusi da hizkera jasoan hiru herskariak ahostun mantendu dituztela beti edo ia beti, ez [t]a izanik salbuespen bakarra. Lagunarteko hizkera ordez, kontrako joera ikusi da /d/ eta /g/ herskarietan behintzat, /b/-ren kasuan ez baitut daturik bildu.
- 15) Ez adberbioaren azkeneko frikaria ondorengo /z/ frikariarekin elkartzerakoan, frikari bat galdu eta ondorengoa afrikatzen da (Jauregi, 2007). Bilakabide hau fortitioa litzateke, frikaria afrikatzerakoan gertatzen de hersketak ohamenean eragina baitu, baina aldi berean ebakera aldetik hobe da. Hizkera jasoan afrikatua ahoskatu dute beti, EBAZek hobetsitakoa betez. Hizkera arduragabeen ere afrikatua ahoskatu dute.
- 16) Ozenen /n, l, r/ ondorengo frikariak afrikatu ohi dira euskaraz. Fortitio bilakabidea dugu hau, izan ere, /s/ eta /ʃ/ → [tʃ] eta [tʃ] ordezkatzeari esker oharmen aldetik hots unitate hobe lortzen da.



Hizkera jasoan /nʃ/ eta /nʃ/ → [ntʃ] eta [ntʃ] ahoskatu da, oro har, *izanen [ʃ]inetela* salbuespen bakarra izanik. Hizkera arduragabeen joera bera ikusi da, kasu guztietan afrikaturik ahoskatu dituzte, *gustatzen [ʃ]ait*, izan ezik.

/r/ ondorengo frikariak ordea zenbait kasutan ez dira afrikatu bi hizkera-mailatan: *uniber[ʃ]ala*, *konkur[ʃ]ua*. ‘Bilakabide hau ere gainditzen ari ote garen galdetu behar dugu, unibertsitate [u.ni.βer.si.ta.te] ere maiz entzuten baita egun. Hizkuntza idatziarekiko dugun menpekotzak eta elebidunak izateak eraman gaitzake bai bilakabide hau bai aurrekoa gainditzera. Izan ere [al.tso] esan ohi dugu eta ez \*[al.so], eta horrelako adibideak erakusten digute, euskaraz ozen gehi frikari bilkurak ez zeudela edo urriak zirela’ (Jauregi, 2007: 264).

- 17) Azken puntu honi dagokionez, ez dut adibiderik bildu hizkera jasoan eta arduragabeen bi adibide topatu ditut dugu: *[e] naizela*, *[e] nun*.

## 5. Ondorioak

Lan honetan, Lesakako hizkera jasoko eta arduragabeko ahoskeren artean dagoen aldagarritasuna aztertzea izan da helburua. Horretarako Euskaltzaindiak 1998an plazaratutako EBAZ arau edo gomendioek, hots edo hots bilkurez esaten zutena hartu dut oinarri, hizkera-maila bakoitzean zein bilakabide fonologiko gertatu den ikusteko.

Datuak aztertu eta gero esan daiteke, bokal bilkuretan ikusi dela hizkera zainduaren eta arduragabearen artean aldagarritasun gehien. Batez ere, bokal bilkuren lehenengo eta bigarren puntuei dagokienez (/ea/, /oa/, /ia/, /ua/). Hizkera jasoan, oro har, EBAZek hizkera jasorako hobetsitakoa ahoskatu dute bokal ordezkatzetik egin gabe. Hizkera arduragabeen ordea, bokal bilkura hauei dagokienez, disimilazioak, eransketa eta hots kenketak gertatu dira.

Kontsonanteei dagokienez, oro har, ez da bokaletan ikusi den aldagarritasuna egon. Bokal arteko /d/ /g/ /r/ kontsonanteen, ahultze eta galtzeari dagokionez, /d/ mantentzeko joera ikusi da, bai hizkera jasoan eta bai arduragabeen. Herskari belar ahostuna eta ttak-ari dagokienez, galtzeko joera handiagoa dutela ikusi da hizkera arduragabeen, nahiz eta hizkera jasoan ahultze bilakabide hau zenbaitetan gertatu den ere.

Kontsonante bilkurei dagokienez, oro har, ez da alde handirik ikusi hizkera jaso eta lagunartekoaren artean, txistukarien eta ondoko herskari ahostunak izan ezik. Izan ere, badirudi Lesakako hizkeran txistukarien ondorengo herskari ahostunen ahoskabetze bilakabidea indarrean dagoela. Izan ere, beti edo ia beti ahoskabetu dira hizkera arduragabeen. Hala eta guztiz ere, hizkera jasoan /b, d, g/ herskariak ahostun mantendu dira.

Orokorrean, hizkera arduragabea izan da fortitio eta lenitio bilakabide gehienen gertalekua. Zenbait kasutan, hizkera jasoan EBAZen hobetsitakoa betez ez dira gertatu hizkera arduragabeen gertatutako bilakabideak. Hala nola /ea/ eta/oa/ bokal bilkuretan edota /ia/ eta /ua/ bokal bilkuretan.

Beste zenbaitetan, txistukarien ondoko herskari ahostunen ahoskabetzea esaterako, nahiz eta EBAZen hizkera jasorako hobetsi eta hizkera arduragabeen hala egin den, hizkera jasoan herskari ahostunak ez dira ahoskabetu. Azken honi dagokionez, Oñederraren (2004) hitzak ekarriz, euskarari begira izan dezakegun uste okerra da ahoskerazko gertakari oro hizkera-maila herrikoari dagokiola eta, “behar bezala” hitz egiteko, hitzen barne-aurkezpeneko hotsak bere horretan ahoskatu behar direla beti. Maizegi, gainera, gure alfabetatze berantiar eta zatikakoagatik, barne-aurkezpen hori hizkuntzaren forma idatzi estandarrarekin berdintzen dugu itsu-itsuan.

Analisian ikusitakoarekin, EBAZen izaera malguaren ideia gogorarazi nahi nuke. Izan ere, EBAZ arauak ez ditugu hiztun guztiek behar, ezta neurri berean EBAZeko ezaugarri guztiak bete behar. Euskal Telebistako berri-emaile batek, herri hedabideko berri-emaile batek baino ezaugarri gehiago hartu beharko lituzke EBAZetik. Hau bera gurera ekarriz, *Xorroxin Irratia* herri hedabidea izanik, ez legoke gaizki, hizkera arduragabeen egin diren zenbait fortitio hizkera jasoan ari diren irratiko esatariek egitea. Hala nola /ea/, /oa/ → [ia], [ua] edota /ia/ → [ija]. Izan ere, fortitio bilakabide hauek ez ziren proposatu EBAZERako, hauek duten zatiketa geografikoagatik.

Bukatzeko esan nahiko nuke, zenbait hotsen datuak ezin izan ditudala bildu eta azterketa sakonagoa egiteko korpus luzeagoa beharko litzatekeela. Gainera, EBAZen arau zerrendan oinarritu naizenez, Lesakako lagunarteko hizkeran gertatzen diren zenbait bilakabide aztertu gabe gelditu dira. Behar bada, beste lan batean interesgarria litzateke hauen azterketa

## 6. Bibliografia

- Barrios, M. et al. (2008), *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.
- Camino, I. (2015), Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde. *Euskera* 60 (2): 429-470.
- Donegan, P. (2002), Phonetical Processes and Phonetic Rules. <http://www.ling.hawaii.edu/faculty/donegan/Papers/2002phonol-phonetic.pdf>
- Donegan, P. & Stampe, D. (1979), The Study of Natural Phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*, 126-173. Bloomington: Indiana University Press.
- Euskaltzaindia (1998), Euskara batuaren ahoskera zaindua, *Euskera*, 43 (1998) 485- 490 ([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0087.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf)).
- Euskaltzaindia (2019, otsailak 18) Oñederra Miren Lourdes – Ahoskera arautu eta i(ra)kas al daiteke? [https://www.youtube.com/results?search\\_query=eta+ahoskera+zer](https://www.youtube.com/results?search_query=eta+ahoskera+zer)
- Gaminde, I. (1996), Lesakako azentu eta intonazioaz, *FVL* 71: 45-70.
- Hualde, JI. (2010), Neutralización de las sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura* 25: 89-116
- Jauregi, O. (2007), *Euskararen Silaba egitura*. Bilbo: EHU/UPV
- Oñederra, M.L. (1986), Hizkuntzen fonologia. *Euskera* 31 (2): 327-332.
- Oñederra, M.L. (1994a), Ahoskera araupetzeaz. *Euskera* 39 (2): 1589-1605.
- Oñederra, M.L. (1994b), Abiaburu zehatz batzuk, *Euskera* 39 1533-1542.
- Oñederra, M.L. (1998a), Ahoskera Lantaldearen Errendapen Txostena. *Euskera* 43 (2), 379-388.
- Oñederra, M.L. (1998b), Prosodiaren oraina eta ahoskera araua. *Euskera* 43 (2), 439-449
- Oñederra, M.L. (2004), *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oñederra, M.L. et al. (2015), Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (*Ahoskerak axola du*). *Euskera* 60 (2):499-531.
- Oñederra, M.L. (2016), Standardisation of Basque: From grammar (1968) to pronunciation (1998), 125-143.

<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/30883/Oñederra.pdf?sequence=3&isAllowed=y>. (2020/04/16)

Zabaleta, I. (2007), Euskalkiak eta komunikabideak. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/69491.pdf> (2019/12/04)

Zuazo, K. (2000), *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdiana.

Zuazo, K (2005), *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

Zuazo, K (2014), *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

## 7. ERANSKINA

### 7.1. Lehen eranskina

#### TRANSKRIBAKETA

Lanerako egin dudan transkribaketa fonetiko honetan zenbait xehetasun ez ditut markatu, hala nola, sudurkarien aurreko bokalak surdurkaritzen direla edota surdurkarien ondoko txistukariak ahostuntzen direla. Izan ere, lan honetarako ez dut beharrezkoa ikusi. Honez gain, hizketa jarraia dela jakinaren gainean egon arren, oro har, hitzak lexikoki eta morfologikoki banatzea erabaki dut traskribaketa egiterakoan.

#### a) HIZKERA JASOA

Mikel Rodriguez

1. [bi eyun eškaş falta ðire eşpañjako awteşkundeetarako şej i/laşbetean biyarena/ ajtşijnekoan ajem burua eşkererotşat dutem bi alðerði nayuşiak etşirelako ađoş paratu yobernua oşatşeko eta orđuam beşela orajñ jende awnitşek alarma piştu ðu bokş alderði frañkişta orajndik gejayo aşkartuko ðela ayertu bajta inkeştetan/ şantjayoabaşkal bokşeko liðera munştroa beşela ayeri ða eşkeroko eşpañol awnitşentşat/ baj eşpañjam bertan bajta ewşkaleriko eşpañoliştentşat ere/ eşa yutşiyorako baña batşutan iðuriðu abaşkal eta areñ gorpuşten dun fenomeno ultra ori eşereşatik şortu ðela batbatin ayertu ðela teştuşgururik gaşe/ eta ori yeşur lari bat da abaşkal aşpalðitik bajtşeyon or politikaren bişitşa puşlikoan gawr eyun defendatşen dicun iðejak defendatşen/ kontua ða orđuan orajñ eşkandalişatuta ðawðenek abaşkal eta ðera beşalako jendea aliatuşat artu şicuştela etşaj komum bat şutelako/ irayanin bweno eta ayian orajñ abaşkalen nayuşia şenak xoşemari aşnarek ewşkalerian nerekin eđo nire kontra politika aplikatu şun eta orajñ eşkandalişatuta ðawðen oriek etşioten dikotomia maltşuroreri ajntşijn eyin eta aşnar eta abaşkal awkeratu şicuşten/ bear ađijnako xuştifikaşjo moral eta etikoak arawtu şicuşten onetarako eta eta terorişmoa dejtşen diotena bajno yawşa lariayorik etşeyoela etaşar bajna ajen awkeraketa oren ondorio işan tşen fenomeno ultra eşpañjolişta orek urte luşetan

españjo eroso bat isan tşula eta orajn eta deşayertu ðenin oren ondorioak gordinayo ikuşten dicuyu/ jaða ultra orjem meatşua eş pajta eş pajtu ewşkaleriak bakarik sufritşen katalunjara saşalðu ðu bjolentsja eta jo puntuan dawðe eşpañjako lanğıleen eşkuşidik elexeteşei jendia etorkinak/ bana eş ta irayanaren awtokritikarik eyinen awtokritika bertşe batşuei eşkatuko şaje eta şeyituko ðute portatşem bokş aşaşkal eta bertşelako jendiłaxe ultra ori patpatin ayertu şalits şeşala]

2. [utopia kontşeptua eranaj şaşaldua ða utopja bat dela lortu eşin den elburu bat/ normalki yişarte juştu bat iruðikatşen du utopiak klaşe şoşjalik eðo deşberdintaşum biðeyaşerik isanen eş dueş gişarte bat oreyatik fantaşiatşat artu oj ða yişarteko eliteari orela ikuştaraştea komeni şaşolako bere poşişjoa eş yaltseko eta ikuşpeyi ori şeciko klaşeej eşartşen şajatsşen da/ ortaş utopia eta fantaşia şerdindu eyicen dira eranaj şera ematen şaje eta ajmat elburu eta iðjologia deşpreşitixjatşeko eraten da utopikoak direla/ anarkişmoaren komunişmoaren eta şoşjalişmoaren kontra ori eratea isan oj ða kaşurik eşayunena munduan/ ewşkalerian eşpañoliştek eta frantfeş naşjonaaliştek ewşkal naşjonaaliştej eran oj ðiete utopikoak direla aw ða ewşkal eri independente bat ewşkal eri oşoki ewşkaldum bat ekşiştituko ðirela pentşatşea fantaşia bat dela eta fantaşia deneş eş duela mereşu oren alðe lana eyicia/ naşjonaalişta eşpañolen kaşuan eşkujnekoej najş eşkerekoej ađicu oj şaje ori /eşkujnekoeş kaşuan eş dakit ajn garbi ðuşuen fantaşia tontoa ðenik bertşela eş bajlituşkete miłaka polişia soldaðu eta şear ađina şaliaşidşe politiko juđişjal eta ekonomiko şidşeratuko fantaşia bat omen den ori erayoştera/ eşkerekoeş kaşuam beriş ewşkal eri independente eta ewşkaldun oren fantaşiari uşteşko bat kontrarjatşen diote madrił awða fantaşia independentiştaren orðeş eyoewşkaleritarok oşeki şişitşeko erealitatea madriłen eşkereko yoşernuşat eyotea ðela eraten dute eta eşfortşwak oretara şidşeratu şearko yintuşkeela ori ðela elburu ereal bat awða eyo ewşkaleritarok dembora eta indara yaldu şear ðuyula eşpañolek berajek miła şederatşirewn ta oyejtamaşeja eşşeroştik baştertu ðuten awkera bat lortşeko/ ori eş baða utopia bat eðo fantaşia bat baj yucienean ewşkal eri independente şaten tamaşakoa]

Miren Rubio

3. [protestatzea eđo protesta eyitea şileyi đela eraten dute ayintariak bapna ajşu normalitatea eta eyuneroko martxa bertsej işoratu yađe eyim bear omen da protesta/ kalera tera baj bapna yapontsekoj embaraşurik eyiđ gađe/ protestatşen eş đawđen eriterek normalitateari ewşteko eşkuđiđea ere omen dutelako nombajt alako bajeştapenak adicu đicuyu aşken aldiam ba ayintarien aotan/ beriki nojş bweno bađiđiđeş katalunako tşunami talđekoek beoşjako muya moştu şutenean eđo lađgişleak greşan bertsej biđea oştopatşen ikuştan dicuyunean adibiđeş/ eta baj đudarik eş şeyuru najş mađarikaşjo betean işanen şinetela şuetako awnitş ba katalunako tşunami muyimendukoek beoşja moştu şutenean eş/ normala ere bađa nork eş du etşera ba tenoreş ajeşyatu naj/ bapna ori yertatşem bađa protesta bađawđe normalidađe yuci đayoen sepale đa şeren onar yajtşaden eyoera bat ikuştaraşteko eta şalatşeko eyiten da protesta/ kaşurikeş eta aditu yajtşaten eyiten den moşilişaşjoa đa/ lađgişle eritar emakume eđoşejn işanta ere/ normala eş đen ori aşaleratşeko eta al bađa alđatşeko eyiten da protesta/ bapna ajşu ayintariak eş eş dute alakorik ikuştan eyoera bereş omen da normala eta protesta đa dena aştoratşen duena điote anormala eđo eşojkoa eta đenen oşeşeareş protestak ere newrian eyim bear omen dira/ noren newrian bertşe iritarej molestatu yađe eđo ayintariei araşorik şortuko eşiđ gişan eyim bear alđira protestak bađa eş/ protestak normalidađe faltaren sepale đira eta oreşatik normala eş den ori normala eş işateko đerişoreş bear đute bertşeontşat traşa işan/ bertşem protestak gu ere traşatu bear yajtuşte mađarikaşjoak mađarikaşjo eta bereşiki ayintariak traşatu bear dituyu bertşela laşaj laşaj şeyituko đute beşawlkietan eşerita/ eş yuri normalidađeaş şolaştu beraş bereşkoa baliş beşala normala eşđeđ gawşa bakara bajta orife/ gajşki eyon eta işilik eyotea eta yapera traşa iđgađe]

4. [urte bat bukatu eta bertşe bat aşten denean ba elđuđeneko eronka nayuşiak şejtşuk işanen diren eştabajđatşen ibiltşen dira politikaria şoşjoloşoak kaşetariak ikerlariak eta awrteđgo eđo şimilataoyejko axenda oretam ba katalunja alderđjen ikamikaketa aliantşak pentşioak eđota ekonomiaren moteltaşunarekim batera jaojtşe đatu bafuak ere ari đira ajpatşem bolobolo/ iñojşko đaturik apalenekim bukatu đuyulako şimilata emeretşiyaren urtea/ gero eta beranduayo

işaten garelako yuraşo eyo ewşkalerialan ađibides bataş bertşeko međja oyejtamalaw bat urtekoa đelako emakumeen kaşuan munduko şaarenetakoa ewroştaten araşera greşjaren eta yalışjaren ondotik/ eta đatu awen ajntsşın şer e gişartear em piramiđe ori nola irawli ba politika publikoen arduradunej politikoej aoa betetşen şaje alako irađokişunekin eđo planekin eş ba biyaren şemealaşa işateayatik dirulayuntşa e planak paratuđituşte martşan eşkolarako điru layuntşak ere baj eđo awnits ađicu đuyna bimiła emeretşi onetan ajtataşum baxa ere luşatu dutela eraten dute eş familjaren eđo şemealaşa gejayo işatearen alde ala điote mbweno baj oņgi đawđe newri ojek baya đenak alferikakoak işanendire benetako araşo eş baduyu komponenten/ awra erditu ondotikeş leenayo đayon araşo ori eta araşo oren işena prekaritatea đa eta aşışena şajtsşarekim baterayarıa eş đem bişimodua đa şimpleayo eranta guraşo işanen liratekeen awnits ba ojek eş đute awrik işaten eş đutelako etorkişuna bermatuko đien lan deşente eta jarajturik lortşen eta şeyurtatşen eta yuraşo đirenean ere amatşı işaten da majş şalbaşjoa şe awra yafotu eta ea şer eyicen duşun şuk awrarekin eş bađuşu urbil şeniđerik eta yawr eyuņ gero eta uruciayo bişiyara yuraşoenşandik şenideenşandik aleyia awren şajntşa baterayajtsşa şajyula eyunerokoarekin eyuneroko prekarjo eta đeşeyoņkor orekin akaşo batşuek eş đuşue ikuşiko iņguruam bajna datuak or đawđe eta are yejayo lana işaneş yero lanean puntapuntakoa işaten şeyitu bear đu emakumeak eta yarıera etşean ere puntapuntako şajtsşale biurtu bear đu/ gişona orajn layuntşale baj bano ori layuntşale işaten şeyitşen duelako eta ori eş điot nik e ikerketek diote aşki yarıbi yarıera/ ortaş eş yajteşen ajn ipokritak işan ajn araşo laria balimbađa yasteek eta yişarteak oroşat iņguruan dituen araşoei elđu barko die emakumeenşan arđura ori utşiyaşe eta oretarako lana lan deşentea bear đa eta bereşiki şajntşa erđiyunean paratu xenero arakalađarik gaşe/ antşı yaşe alokajru normalak beraş oşaşun şerbitşu puşlikoa eta eşkuntşa şistema unişersala bertşela yoşernuen dirulayuntşa orjetako şoşak baj şulo batin şartuko đira biño bertşe batetik ateri dewştako eta emeņ gero eta sarayoak işaten şeyituko đuyu]



b) LAGUNARTEKO HIZKERA

Andoni Zubiri

5. **AZ.** [bale bale şuk patu Ƴaraʔatsen/ a bale ʔayo/ pweş ne amatʔikin icenuna şem pweş ori praktikatşe num beʔenikan ewşkaraşko lenayoko Ƴarajtako ewşkaraşko itşak eta ta orajn oj ʔena Ƴaldu ʔut kriřton piĵa aldiro şolaşten dut erdarakađak e nere şolaşteko mođwa ʔa oşea ewşkaraş miĵno erdaraşko itşak şartşem moyojon miĵno Ƴwarty Ƴaşe enajsela wartşen şe Ƴero nik erderaş ere eş dut ni putajđea/ ni putajđea ʔiĵno ʔeş ni putajđea/ şergatikan alđe Ƴuřitatik şuşentsen djate nik onartşen dut şergatikan e(y)ija eran eştakit galdu ʔut mweno Ƴaldu ʔut eş takit eşta/]

**G.** [ta orĵ nojřtikan naʔajtsen deşu galdu ʔeşula]

**AZ.** [ori pwa ĵa Ƴařtetatik iĵnon nik erđeraş ĵa ʔaj eşkolan eta alđe Ƴuřitan oşea erđeraş ĵajşki şe eyondu najş lanin ere sukaldin nitşelikan lanin ĵendia erđeras eyiten tşuna eta eyoten tşiren şuşentsen ta nik eşka eşkatşe nien e şuşentseko şe ikuřtenun eş tutela ni putajđea şartşen cuřtela itşak e erderaşkuk miĵno oşea o şoltatşen cut ola oĵgi ʔalimba şayoşim ʔeşela ʔiĵno reşulta ke eş tayoşila oĵgi miĵno Ƴero ewşkaraş ari najş ewşkaraş şolaşin ta şartşen cut erđaraşko itşak dayoşinak oĵgi miĵno ewşkaram barenin]

**G.** [ĵa ta or eʔaj ikuřteşu]

**AZ.** [ĵaj or kakaw ʔat ta amatʔik ađiʔiđeş amatʔikin tşayoĵ ĵwaj şeʔa oşea itşak aĵen itşak dire lenayoko Ƴarajtakuk eş takit dire itşak bereřik e ʔa itş ʔat ađitşen tşuna ta eş tuşula ulertuko se ranaj ʔun/ iřtakoloka]

**G.** [aʔaj oj şantşian aritşek]

**AZ.** [ĵaj iřtakoloka nik iřtalokola enun a ʔwano enun ađicua aritş ʔweno ʔeş aritşeri reʔaj ʔere amatʔik eranata orela miĵno istakoloka neri erate ʔĵate iřtakoloka eştut iđeĵrik ere şe ranaj ʔun iĵno ʔire itş politik]

**G.** [emeĵguak ĵaĵera eş]

**AZ.** [karo emeḡgua ewşkaraşkuk aşkenin ewşkarak baðu kriřton ori kriřtom biđia/ oşea eranaj đut ewşkara đa erđarakin ta awnitş iřkuntşakin kompatuta oşea baðu kriřtom biđea ta kriřton eřto/ gero đa kontwa lenoyoko yarajakin ta ori đena pweş bajta amatřikeri ta lenoyoko amatřik eş awek denakeri etřioten uřten eta ajeri re baj bařiren itřak ajekere iřiltşen tşutenak řirela erđerařkuk ere baj najyaře mijno iřno eş takit/ ni nayo ta orañ awra bađutela ta ori đena sajatşe najş e ewşkaraş řolařten eđoşenek eranen tşula itşeyiten mijno yuk eraten duyu řolařten eta eta ori ikuştewtena đa ajek eřkolan ikařten eta ni yero e řolařten duten mođua ajtş ajtş deşberdina]

**G.** [batua es eđo]

**AZ.** [karo ajeri yejayo yejo batua ta nik řolařten dut baj erđarakađak řartşen itřak e ewşkaraşkuk direnak lenayokuk ere eş ařpalđi ařpalđikuk mijno baj direla lenayokuk emen iřiltşen cuyunak karo aşkenim baj bařtan e nere aca đa bařtandara nere ama leřakara e ne aca đa ne acak ere ewşkaraş icen du eřtu dewş ikuştekorik leřakako ewşkara bařtanęo ewşkarakin dewş dewş dewş]

**G.** [eta arantşakobaten ewşkara]

**AZ.** [eta arantşako baten ewşkara eđo etřalarko baten ewşkara eřtu dewş ikuştekorik leřakako batekin dewş ere]

**G.** [eşke nik ađiřiđeş eş det nabaritşen]

**AZ.** [pweş etřalarko baten ewşkara đa yejo e bařtandar baten ewşkara mođua komparatuta yurekin oşea yuria đa eşke eş takit eşke eş takit eş takit şe grupotan řartu řiřno bařtandar oşea etřalartarek baj bađute ařentua o baj bađute or dela bařtandar giřa baj baj]

**G.**[baj ařentua eđo]

**AZ.** [baj ařento baj baj baj řerřacere bađira itřak ere đela bařtandar alđera eta yu řiři yara estřalartik urřil aşkeniņ gara e bortřiriak gara oşea baj iyantři arantşa etřalar eta eřtu yu đewş ikuştekorik bera bera leřaka najko řerdinak bera yejayo

erðara mijno etfalar arantşa ta iyantşi yejayo ðute baştandar baştandar alðera tiratşen dute]

**G.** [arantşa eta iyantşi ereβaj]

**AZ.** [iyantşi eş ajm bertşe mijno arantşa ta etfalar βaj arantşa ta etfalar βaðute arantşa oajndikan gejo pweş lenayo yarajtakuk şe aşkenin dayo punta βatin şuper yorðia eta or aşkenin pweş βaðiren awniş şar eta ola eta eş mantejntşen dire mantentşen dire yejo/leşakan aşkenim beram başala tor da kamptik jendia ere eta βaða awniş jende ere erðara icen duna eta orðun eta orðum pweş ori yure ewşkera ða ajtşeş deşberðingua itşak maş ke aθento ðire itşak itşak deşberðinak iβiltşen cuyunak ta nik awniş ikuştan dut acakin aca ðela baştandara]

**G.** [karo baştanen eβaj işango dituşte berajenitşak]

[karoβacuşte ajenitşak e fite fite ðela aβuðo βaj olako olako itşak ta yuk eş cuyunak eta şumatşen da eta eş kawðe ajn uruti re eta ðire ewşkera mijno ðire ewşkerak ajtsajts deşberðinak]

Joxe Angel Zubiria

6. **JZ.** [bweno niri yuştatşen şajtem beştak denak guştatşen şajt beştaşalia najş ta yuştatşen tsajt oŋgi paştatşia/ bešta neretşat bešta politak şamfermipak dire şamfermitan aşkenin eyuldik layuntşen du kampun e şawðe jarita laşaj eðerin batekim bertşikin/ gaβaş eyuldi eðera ðayo e eyurðim baki/ake guştatşen tşajt şeşenak denake/ gero bweş pintfo batşuk artu trayo batşuk başkaldu/ atşalðin trayo batşuk artu yaβim bešta eyin/ neri şamfermipak gejena inawtik politak dire inawtik difente icen cuyu/ başeritan iβiltşen gara orðun eşta urteyuşijin icendiren beştak/ beti pweş şawðe ęstatotan taβernatan şawðe şartua e inawtitan da başeritan e ða difente eş/ ta orðun başeritarok ere ikuştan cuşu bweş eşprun dawðela şue yu ajetşia korðjon şonuke dantşak iriβatşuk atejtşen cuyu]

**G.** [ta şe iten şute or e başeritan ta nola iştan da]

**JZ.** [bweno bašeritarak bweno bašeri yušitan difente eš/ pweš batšutan bašeri batšutan atejtšencušte majak e majak denak pintfoš betik batšutan arđua šayarđua šerbešak/ e bertše batšutan minimo gajleta batšuketa arđua šatua atejtšen dute/ gero pweš βweno šenek du konfiantša beti bađa bakaramat bešeri ortan aremana bađuna βweš βera yelditšen da iywal bašeritarakin šolašin bertšik šeyitšen duyu đantšan/ beti bađa norβajt difente kwadrikan pweš bweno šenek dun aremana bašeri ortan ura urbiltšenda yejembat bašeritarakin šolaštia tori/ gero βweš urtero atejtšencuyu argaškik bašeritan ijewrekin eta aškeneko urtetan ari yara urtero aryaški βat e pweš elexitšen cuyu iru bašere law bašere ta urtero eramicen duyu bašere difentetara antšinjko urteko aryaški ori areylo icendioyu eš pweš kwadro βat in eta βaj βaj/ ori aši yipem pweš wajn dela βi urte irurte aši yipen ori eyicen]

**G.** [aryaškina]

**JZ.** [aryaškina βaj eta kristom poša artšen dute βaj/ antšinjko urteko aryaškia eta beriš ere atejtšen duyu aryaškia/ oajn ja artu đuyu ojcura bašeri yušitam bašeritarekin aryaškia atejtšeko]

**G.** [ta šembat bašeri ištaten dira]

**JZ.** [pweš eš tišut eranen/ eš takit eš tišut šemakirik eranen šeβa eš takit oyej oyejtamar eš takit eš takit/ oyejtamar beroyej eš takit eške eš takit šemat bašeri đen diren seyuraški]

**G.** [ta ori frajndarak]

**JZ.** [frajn awšua eta yero aštjartin eyicen duyu frajn bertše βertše puška βat eta ištšalđea]

**G.** [a enun ištawtšen]

**JZ.** [βaj ištšalđea đa ajšeyu yarı ori]

**G.** [bale]

**JZ.** [baj eyicen duyu aştelena ta aştıartia/bi eyun icen cuyu/ eta yero aştıartim baj atejtşen gara jende yuciyo eş/ aştelenin iywal atejtşen gara beroyej bat inguru beroyej beroyejtaβoş inguru ortan eta aştıartin atejtşengara pweş amaβoş elkartsem balim bayara]

**G.** [xo βađa xendia]

**JZ.** [baj eta orđun difente đa ja amaβoş layun şartşen diyute ja şukalđera βa βaşeritan şukalđe βarenin e eş yara đantşan ibiltşen gejayo đa jari maj ingurun eta βweş ori akorđeojak jotşen dute yero kantatu iten duyu e βakaram batek tşistem bat botşen du yero aştokeritan şolaşim ba krişton irik botatşen cuyu oŋgi oŋgi ajtş polita aştıartia re difente βiŋnom polita]

**G.** [gaŋera yiro polita sortuko đa eş başeriko xendiakin eş pweş iwal eriko xendia urbiltşia ta parte artşeorı]

**JZ.** [eta yero bweş tipikua karo or βađa jendia jatşun urteyuşıjın eş tena erira βaxatşen orduŋ gu yojtşen garelikan bweş βađire momento βatşutan aştın direla xoe ta awrtın aw eş ta ateri ta eş βweş eri đaβıla eđo lanın aşı đa olko lekutan xo ta oren acak ser eyicen du ta βertşik ta aştın gara ja ola aştın dire yalđerak eyicen jewrentşat da krişton eş]

**G.** [karo beajek ere poşik]

**JZ.** [baj baj βaj βaj polita đa/ olentşero eyuna yuştatşen tsajt piłaβat olentşero ewna netşat aştının e olentşero eyicia ja aştıe bat leno eyicen aştışe ori e eta eyuna gojşetikan olentşero artu yoşalđu yero konkurşura urβılđu ta plaşa ingurum bweş or urβiltşen da jende pilβat urteyuşıjın eştayona tortşen da fetşa orıtın tortşen dire eta bweş ori netşat ere polita đa jende orekin elkartşia ta urtero şawđe eşperun eş aw torko đuk ta ura ta bertşia jon leku ta olako jendia]

## 7.2. Bigarren eranskina

### EUSKARA BATUAREN AHOSKERA ZAINDUA (1998)

#### ARAUAK

##### **Bokalak**

**I.** <a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

##### **Bokal bilkurak**

**II.** Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduetan: *etxea* etx**ea**, *geroago* gero**ago**, *mendia* mend**ia**, *burua* bur**ua**.

Gainera aintzat hartu behar da:

**II.a.** <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: etx**ia**, etx**ie**; geru**ago**, telefon**ua** eta kidekoak).

**II.b.** <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: mend**iya**, mend**ixa**, mend**iza**; bur**uba** eta kidekoak edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: mend**ie**, mend**i**; bur**ue**, bur**u** eta kidekoak).

**III.1.** Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenengoa <i> edo <u> bada, bokal bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: abi**.an**, sozi**.ala**, zi**.ur**). Dena den, badira hitz batzuetan ui diptongoak.

**III.2.** Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hitzunengan hizkera zaindutat hartuko da ahoskera hori.

**IV.** Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hiztunek ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzera joko dute hizkera maila zainduan (hala nola: **za.harra**; **na.hi** du; **bi.hurturik**; **a.hula**; **be.hi**).

### **Kontsonanteak**

**V.** Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan

**<b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, z>**

Beraz:

**1.**<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*). Azken orduko mailegutan, salbuespenak banan-bana markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun *gin* (edaria).

**2.**<s, z> eta <ts, tz> Hizkera zainduenatarako pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde <z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelerazko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena.

**3.**<b, d, g, r> bokalarTEAN gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desagertu edo alda daitezke hizketa arduragabeen (hala nola: *ari nai*z ai nai, *horiek* (h)oiak, *egon* eon, *edan* ean, eran, etab.). Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokalarteko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira.

**4.**<r, rr> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

**VI.**<h> Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hosiakabea den Hegoaldeko euskalkietako hiztunen ahoskera zainduan ere <h> ez da ahoskatuko. Letra horren mututasunaren salbuespen bakarra Hegoaldekoen ahoskeran zihoan, zihoazen bezalakoetan gertatzen

da, hor <h> [x] belarraz ahoskatzen delarik (gaztelaniazko *jamón* hitzaren lehen kontsonanteaz, alegia).

<h>az esanak berdin balio du <ph, th, kh> ahoskeretarako: erabat egoki da ebakera hasperenduna halakoa duten Iparraldeko euskalkietako hiztunengan (hala nola *eperra* epherra eta kidekoak).

**VII.**<il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> (hala nola: *mila milla* edo *mailua mallua*, *bina biña* edo *baino baño*) ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —*milla*— da eta ez <y> —*miya*—). Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila mila* edo *mailua mailua*, *bina bina* edo *baino baino*).

**VIII.**<j> letraren euskarazko ahoskera oinarrizkoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:

**VIII.1.**<j> hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola *jateko yateko*, *jokalariak yokalariak*).

Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk (*Heg.* marka daramatenak) Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*).

**VIII.2.**<j> hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko [x] belarra (gzt. *jamón*) eta Iparraldeko <ç> sabaiaurrekoa ere (fr. *jambon*) onartzen dira hizkera zainduan *garaje*, *ijito* bezalako hitzetan.

**IX.1.**<x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu*, *xoxo*, *Xabier*.

**IX.2.**<x> Maileguetan bokalartekoa <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (hala nola: *sexua seksua*, *taxian taksian*, *faxez faksez*). Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira. Horietan ere [ks] ahoskera egin daiteke.

### **Kontsonante bilkurak**

**X.**<zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere ez adberbioaren ondoren ondorengo <d> kontsonantea (aditz formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar da (hala



nola *ez da: ezta*). Ez adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ebakitzea hobesten da (hala nola: *ez gara: ezkara; ez bada:ezpada*). Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da hizkera maila zainduan ere.

**XI.<zz>** Ahoskera zaindurako ere ez adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira afrikatua osatuz (hala nola: *ez zara: etzara; ez zetozeela: etzetozeela; ez zenion: etzenion; ez zuen: etzuen*).

**XII.<nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs>** Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) afrikatu (<tz, ts>) egin ohi da euskaraz (hala nola unibertsitate, Frantzia, faltsua). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaretan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen: esantzuen; eman zion: emantzion*).

**XIII.<zn, zl, zh>** Ahoskera zaindurako ere ez adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere (alegia, *ez naiz: eznaiz edo enaiz; ez luke: ezluke edo eluke; ez haiz: ezaiz edo ehaiz*).